

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko uztailaren 4a • IV. urtea • 117. zenbakia

DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Izozkia: artisaua, bainilazkoa eta eguzkipean jatekoa

ARETXABALETA

Aurkitu dute domekaz gero desagertuta zegoen andrearen gorpua /6



IÑAZIO IRIZAR / IRAKASLEA
"Ekintzaile ona izateko entrenamendua behar da; eta ambizioa" /9

ANTZUOLA

Maristen etxea izandako eraikina botatzen hasi dira

Martitzenean hasi ziren Antzuolako maristena izandako eraikina botatzen. Eraikin horretan egon dira, azken urteotan, gaztetxea, erretiratuen egoitza, liburutegia eta zinema. Eraikina konpondu eta gizarte etxea jartzeko asmoa zuen Udalak; lanekin hasi zirenean, baina, eraikinaren egitura txarto zegoela ikusi, eta eraikina eraistea erabaki zuten. /7

DEBAGOIENA

Aretxabaletan eta Eskoriatzan egingo da Kilometroak 2005

Arizmendi Ikastolak antolatuko du 2005eko Kilometroak Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Kilometroak jai hiru bider antolatu dute gure ibarrean: 1981en, Arrasaten egin zuten; 1989an, Oñatin; eta 1991n, Bergaran. Hortaz, 2005ean berriro ere Debagoienan ospatuko dute. Aurten, Lazkaon ospatuko dute eta datorren urtean, Zarautz-Orian. /4

ASTEKO GAIA: GALIPOTA EUSKAL KOSTALDEAN /2-3

Fuelak ez du ibarrekoen oporretan eraginik izan

Gipuzkoako hondartzetan galipot arrastoak daude, eta oraindik beharrezkoak dira garbiketa lanak. Eusko Jaurlaritzak, hala ere, hondartzazaleak lasaitu nahi izan ditu, eta ziurtatu du ez dagoela osasunerako "inongo arrisurik" hondartzara joanez gero.

Debagoiendarrok, barneko eskualde batekoak izanik, gustuko izaten dugu udan hondartzara joatea, eta aurten, fuelaren kutsadurarekin, berdín gertatu ote zen jakin nahi izan dugu.

Ondorioa da, oro har, debagoiendarrok ez direla fuelaren beldur, eta osasun arduradunek emandako mezuarekin bat dato-

■ *Galipota egon arren, ibarrekoak ohi bezala joaten dira kostaldera*

■ *Osasun Publiko Sailak bost gomendio plazaratu ditu*

zela. Hortaz, hondartza denboraldia hasi zenetik, normaltasunez jarraitu dute ibarrekoek euskal kostaldera joaten. Gauza bera esan dute uretako kirolak egiten dituzten debagoiendarrek. Galipota egon edo ez, hondartzez gozatzeko dute ibarrekoek.



MONIKA BELASTEGI

600 ume udalekuetan

Debagoieneko herri gehienetan oraingo astean hasi dituzte Udaleku Irekiak. Eskolak amaituta, era askotako jolas eta jarduerak egiteko aukera eskaintzen diete ibarreko neska-mutikoei udalekuek, uztailko goizetan. Astelehenean, gainera, egun berezia izango dute, San Fermin eguna dela-eta. Iruñera joan barik, zapi zuria lepoan eta zuri jantzita, *zezenen* aurrean ibiliko dira. /6

GOIENKARIAko lan bati, Rikardo Arregi saria

XV. Rikardo Arregi sarietan aipamen berezia egin zioten, joan den zapatuan, Andoainen, Leire Kortabarria kazetariari. Hain justu ere, urtarrilaren 17an GOIENKARIA argitaratu zen C.S.I. telesailiko Billy Petersen izar amerikarren gainean eginiko erreportajea saritu dute. /5

**LORAMENDI
KIROLAK**

BEHERAPENAK

INTERSPORT Arrasate

Touran berriak behar duzun dena dauka



Udalaitz

Touran



Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Ibarrekoak ez dira fuelaren beldur

- Batzuk mesfidati daude, baina ibarrekoak hondartzara normal joaten dira
- Eusko Jaurlaritzak ziurtatzen du ez dagoela “inongo arriskurik”

L. KORTABARRIA / I. AGIRREAZALDEGI

Debagoiendarrak, uda guztietako ohiturari jarraituta, Gipuzkoako hondartzetara joaten hasiak dira aurten ere. Uda honetan, tonika hori alda zezakeen elementu arrotz bat dugu, *Prestige* petroliontzia hondoratu zeneko galipot isuria, gure hondartzetara ere iritsi dena. Jaurlaritzaren arabera, “ez dago inongo arriskurik”, eta ibarrekoak ere hala ulertu dute, hondartzara joaten jarraitzen dute-eta. Batzuek lasaitasun handiagoz hartzen dute beste batzuek baino, hori bai.

“ERREPAROA EMATEN DIT”

Orioko hondartzan, ur ertzean paseoa ematen aurkitu genituen Luis Oñate eta emazte Maria Nieves, oñatiarrak biak. “Hondartzara etorriko naizen? Bai, horixe, eta lasai asko, gainera”, diosku Luisek, galdetzen diogunean. Maria Nievesek, aldiz, galipota dela-eta, itsas ertze gerturazteak “erreparo pixka bat” ematen diola onartu digu.

Bikotearekin berbetan gabiltzala, euren seme Iker hurreratu da, oin-azpiak galipotez zikinduta dituela. Hala gertatzen zaie Orion, eta, oro har, euskal hondartza gehienetan paseoa joaten diren guzkiei.




IRATI AGIRREAZALDEGI

Iker Oñate debagoiendarrari galipotez zikindu zitzaizkion oin-azpiak, paseoa ibili ondoren.



Europar lehenak gara umeen aisialdian, eta barruko eta kanpoko 500 jolastoki baino gehiago instalatu ditugu.



Gure **icolandia** produktuak diseinatu eta fabrikatzen ditugu, jolasak umeen garapen fisiko, sozial eta emozionalerako ezinbestekoak direla pentsatzen dugu-eta; eta, horregatik, kolore, forma eta jardueraz betetako mundu bat sortzen dugu.



ICOTEC 2000. S.A.

Txako poligonoa, 3. eraikina, 5. pabilioia, esk.
48480 ARRIGORRIAGA (Bizkaia)
Tel. (+34) 94 671 30 90 • Faxa: (+34) 94 671 40 28
www.icolandia.com • Posta-e: info@icolandia.com

Galipota, zikina eta deserosea bai –azala gorriaraztea dakar, ukituz gero–, baina arriskutsua, behintzat, ez da. Halaxe ziurtatzen du Eusko Jaurlaritzak. Ikerrek eta berari gertatu zaiona gertatzen zaien hondartzazale guztiek egin beharrekoa da sorospen postu batera hurbildu eta han dago-

en olioaz garbitu: “Azala gorritzen du, baina beste eraginik ez du fuelak. Umeren batek, halako baten, galipotez nahastutako harea irentsiko balu ere, ez litzaioke ezertxo ere gertatuko. Ez dago arriskurik”, dio Eusko Jaurlaritzak.

Jaurlaritzak bainu denboraldia hastear zegoenean eskatuta-

ko analisisen emaitzak eta haien ondorioak jakinarazi zituen. Ekainaren 13an egindako agerpen baten, Osasun Publikoko Zuzendaritzak honakoa esan zuen: “Azkeneko hiru hilabeteotan emaitza negatiboak konfirmatu ondoren, Euskadiko Erakunde Arteko batzordeak gure hondar-



IRATI AGIRREAZALDEGI

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publiko Sailaren esanetan, harea bustita edo hezea dauden guneeetan dago galipotez zikintzeko aukera handien.

tzetako itsasoko ura 'bainurako egokitza' jo du". Irizpide horrek berak jarraitzen du indarrean orain ere.

OSTALARITZA ETA KIROLAK

Debagoieneko hondartzazaleak, hortaz, lasai asko joan daitezke ibarreko sarrinen bisitatzen ditugun hondartzetara: hala nola, Donostiakoetara, Zarautzera, Oriora, Mutrikura eta Debara. Eta halaxe egingo dute, orain arte ikusitakoaren arabera. Orioko hondartzako jatetxe bateko langile batek, Amaiak, honakoa deritzo: "Galipota egon edo ez egon, jendea berdin-berdin dator hondartzara. Eguraldiak agintzen du galipotaren arriskuak baino gehiago". Amaiaaren esanetan, jendea "ez da konturatzen" gali-

*Orioko ostalari
bateg: "Galipotak
baino gehiago,
eguraldiak agintzen
dio jendeari"*

pota "kaltegarria" izan daitekeela.

Amaiak komentatutako jarrera hori, ez konturatzearena edo aintzat ez hartzearena, alegia, ez da orokorra. Debagoiendar askok, uda iristerakotan, etxebizitza errentan hartzen dute kostaldean. Elena arrasatearrak etxebizitza du Donos-

*Etxebizitzak
errentan ematen
dituzten artean,
batzuek sumatu dute
fuelaren eragina*

tian, eta urtero errentan ematen du; aurtan, baina, mugimendu txikiagoa sumatu du: "Aurreko urteotan denboraldia hasi eta berehala lortzen nuen etxebizitza errentan ematea. Aurtan, ordea, jendea gutxiago ari da mugitzen. Nik, behintzat, sumatu dut eskaeraren jaitsiera. Nik uste dut galipotagatik dela", dio.

*Ekologistak
Martxan taldearen
gomendioa da udan
hondartzara ez
joatea*

Galdetutako beste etxebizitza jabe batzuek, ordea, ez dute eskaeran aldaketarik igarri.

Kirolariak ez dira iritzi berekoak. Uretako kirolak egiten dituzten ibarreko hainbatekin egin dugu berba, eta Unai surflari mondragoetarraren hitzek laburtzen dute jarrera orokorra: "Nik neuk, behintzat, nor-

mal joaten jarraitu dut. Irratian entzun ditut osasun gomendioak, eta ez dut uste arduratzeko arrazoirik dagoenik. Fuel orbanak ditudanean, olioarekin garbitzen ditut, eta ez dut bestelako arazorik izaten. Hondartzan nagoanean, jendea ere betiko moduan ikusten dut".

NORMALTASUNA NAGUSI

Jendearen askotariko iritziak argitara ekartzen dutena da kasu batzuetan informazio falta dagoela eta beste batzuetan alarma piztu dela eta badaudela, badaezpada ere, gurago dutenak ez arriskatu eta beste alternatiba batzuetara jo. Hala ere, horiek gutxiengoak dira: debagoiendar gehienek hondartzarako grinak ez du fuelak aldatu.

EKOLOGISTAK MARTXAN Euren gomendioa da udan hondartzara ez joatea

Ekologistak Martxan taldeko Itziar Mielgo elkarrizketatu zuen GOIENKARIAk maiatzean, eta taldearen gomendioa herritarrei izan zen "udan hondartzara ez joatea". Administrazioari leporatzen zion taldeak hondartzak ez ixtea "turismoa erakartzeko beharrezkoak direlako", eta bandera beltza ipini zion hainbat euskal hondartzari. Eusko Jaurlaritzak, horren gainean, adierazpen laburra egin du: "Taldea iritzi guztiak errespetatzen ditugu".

OSASUN AHOLKUAK Sorosleei kasu egitea eta olio garbitzea, garrantzitsuena

Osasun Publiko Sailak aholkuak ematen dizkie hondartzara joaten diren guztiei: sorosle zerbitzuen abisuei kasu egitea; hondartzan gabiltzanean, oinetakoak eramatea; umeak ondo begiratzea, ahora edo begietara harea eraman ez dezaten; haitz zonaldeetan ez ibiltzea; eta fuela ukituz gero, olio edo kremaz azala igurtzi, eta segidan, ur eta xaboiak garbitzea. Argibide gehiago www.euskadi.net webgunean, *Jaurlaritzaren* epigrafean izango duzue.

IXTEA, AZKEN NEURRIA Galipot emari handia baldin badago itxiko dituzte hondartzok

Administrazioak, galipota gurera iristen hasi zenean, esan zuen guztiz prest egongo zela hondartzak ixteko, horren beharrik balego. Itxi ere, itxi ditu: denboraldia hasi eta asteburu horretan bertan, hondartzak bat itxi behar izan zen, eta Zarauzko hondartzak ere itxita egon zen. "Bat-batean fuel emari handia dagoela ikusten bada, orduan ixten ditugu hondartzak, osorik edo kaltetutako gunea; garbitu eta berriro zabaltzen ditugu", dio Osasun Publiko sailak.

FUELA, DATUTAN la 20.700 tona fuel batu dituzte ekainera arte EAEn

Guztira, 20.695,081 tona fuel bildu da, ekain bukaerara arte, EAEn kostaldean. Orain, galipota oso xehatua dago, ekaitzek, denborak... eraginda; hori dela eta, garbiketa eskuz egiten dute orain horretan dabilten 244 lagunek. Fuel arrastak harea heze dagoen lekuan daude orain, gehienbat. Gipuzkoako hondartzak dagokienez, Getariakoa da kaltetuena: bertan, 350 kilo fuel jaso ziren ekain bukaerara arte. Zarauzko hondartzan, 300 kilo jaso ziren.



LEIRE KORTABARRIA

Larraña barnetegiaren atea itxi egingo dituzte, urterik urtera jende gutxiago animatu da-eta ikastaroetan parte hartzera.

Oñatiko euskal barnetegia itxi egingo dute, hamasei urtez jardun ostean

Jende kopurua geroz eta txikiagoa izatea izan da arrazoia nagusia

AMAIA LEIBAR / ZURIÑE V.M.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) ekainaren 27an jakinarazi zuen Oñatiko barnetegia ixteko asmoa. Hamasei urtean 400 lagun batu dituen barnetegiak urterik urte jende gutxiago jaso du bertan egin diren ikastaroetan.

Oñatiko Larraña barnetegia itxi egin dute, 16 urtez lanean jardun ondoren. 1987an inauguratu zuen garai hartako Lehendakaritza eta Zuzentza sailburu Juan Ramon Garatek. Esan bezala, lehenengo ikasturtea 1987-1988an izan zen, eta aurtengo ikasturtera arte eten barik antolatu dituzte.

Hasiera batetik helburua izan da euskal administrazioetan lanean dihardutenen euskalduntzea eta horretan elementu osagarri izatea. Modu horretan, langileei euskal giroan euskaraz bizi izateko aukera eskaini diete 16 urte hauetan. Barnetegiko arduradunek behin baino gehiagotan azaldu dute derrigorrezkoa dela ohi-

ko eskolen bidez lortutako emaitzak murgiltze programen bidez osatzea. Ikastaroak, hortaz, ez dira ekintza isolatu gisa planteatu, langileen euskalduntze prozesuko beharrezko osagarri gisa baizik.

Herri administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abian jarri zenez gero, ikastaroak testuinguru zabalagoan kokatu behar dira.

Hamasei ikasturte hauetan 400 ikasle ibili dira, gutxi gorabehera, barnetegian; ikasturte bakoitzeko, 25. Hala ere, politikoki kopuru hori jaitsiz joan da. Horrek ekarri du ordura arte urratsetan banatutako taldeak

Barnetegiko ikastaroetako eskaerak EAEko beste barnetegi batzuetara bideratuko dituzte

desegin eta urrats desberdineta-koak elkartuta taldea sortzea.

Barnetegian astebeteko egonaldia egiteko aukera zegoen. Hala ere, azkenaldian arazoak zituzten talde horiek sortu ahal izateko. Egondakoen arazo nagusiak lanari eta familiar lotuak ziren gehienbat. Lanari dagokionez, langileak barnetegira joan ahal izateko, erakundeek horiek liberatu egin behar izan dituzte, eta ordezkokoak hartzea eragin ekonomiko garrantzitsua izan liteke erakunde askorendako. Hala, horiek guztiak kontuan hartuta, barnetegia ixtea erabaki du HAEEK.

Izan ere, barnetegi-etxearen jabea Eusko Jaurlaritza da, baina 1987an HAEEri utzi zion barnetegiaren kudeaketaren ardurara. Barnetegian euskara ikasteko ikastaroak antolatu ditu HAEEK, lehen aipatu bezala, hainbat urratsetan banatuta. Barnetegiko ikastaroetarako jasotzen diren eskaera kopurua txikia izanik, EAEko barnetegietara bideratuko dituzte eskaerok.

DEBAGOIENEAN LABUR

Arrakasta handia izan du 'Arrasate 1936. Belaunaldi etena' gerraren gaineko liburuak

Espainiako gerran frankistek hil edo desagerrarazi zituzten debagoiendarrak omentzeko eta memoria historikoa berreskuratzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten ekain hasieran gure ibarrean. Besteak beste, monolitoa ipini zuten Arrasateko Laubide plazan eta liburua argitaratu zuten: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Oktubre taldeak argitaratu zuen liburua, euskaraz eta gaztelaniaz, mila ale bakoitzeko. Liburu hori oso ondo saltzen ari da, batez ere euskarazkoa, baina oraindik eskura daiteke, 18 eurotan, honako toki hauetan: Oñatin, Altuna estankoa; Aretxabaletan, kioskoan, Bergaran, Urkan-en; eta Arrasaten, Monte tabernan eta Hire liburu dendan. /E.A.

Eskoriatzan eta Aretxabaletan ospatuko dute Kilometroak ikastolen jaia 2005ean

Arizmendi Ikastolak antolatuko du 2005eko Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jaia. Ikastolako arduradunak dagoeneko hasi dira lanean, eta ibilaldia nondik nora izan daitekeen zehazten dihardute apurka-apurka. Aretxabaleta eta Eskoriatza hartuko ditu ibilaldiak. Urriko lehenengo domekan ospatzen da Kilometroak jaia, eta aurtengoa urriaren 5ean izango da, Lazkaon. Datorren urtekoa, ostera, Zarautz-Orian ospatuko dute. Kilometroak jaia hiru bider antolatu dute gure ibarrean: 1981en, Arrasaten egin zuten; 1989an, Oñatin; eta 1991n, Bergaran. Hortaz, 2005ean berriro ere Debagoienez ospatuko dute. /E.A.



MUK eta Realak hitzarmena sinatu dute

Mondragon Unibertsitateak eta Realak hitzarmena sinatu zuten, martitzenean, Anoeta futbol zelaiko palkoan. Inaxio Oliveri MUKo errektoreak eta Jose Luis Astiazaran Realeko presidentek sinatu zuten akordioa, beste batzuen artean. Hala, futbol taldeko teknikari eta zuzendaritzaren etengabeko prestakuntza ekarriko du horrek. Horrekin batera, Realak futboleko jarduteko eta hura gestionatzeko ezagutza erakutsiko dio MUKi. Akordioa, hasiera baten, hiru urterako den arren, luzatu egin lezakete. /Z.V.M.

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak Emakumeak

JANTZIAK

Ibai-arteren bazkide

M

MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoak neurrira izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.

Zure oinen erosotasuna, gure bermea.

Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA

Gaueko autobus zerbitzuetan ordutegi aldaketa

Aukera zabalagoa izango dute erabiltzaileek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Udari begira, gaueko autobus zerbitzuetan ordutegi aldaketa izango da. Horrela, eskaintza handitu eta jendeak autoa ahalik eta gutxien erabiltzea da helburua. Eta, edanez gero, irtenbide ziurragoa ematea da zerbitzuen asmoa.

Gaur hasi eta irailaren 26a arte, biak barne, gaueko zerbitzua egubakoitzetan ere egongo da. Ordu-tegiari dagokionez, zapatuko berbera aurkituko du erabiltzaileak. Eibar-Mutriku zerbitzua hartzen dutenek, Eibartik irteten diren autobusen artean, 01:00etakoa, 02:30ekoa, 04:30ekoa edo 06:00etako

koa har dezakete. Mutriku gaurdian hasten da zerbitzua, eta 01:30etik aurrera bi orduro. Eibar-Eskoriatza ibilbidea egiteko, Eibarraren 00:00etan hasi eta ordu eta erdiro autobusa hartzeko aukera izango dute erabiltzaileak, goizeko seiak arte. Itzulerari dagokionez, berdin. Oñati-Arrasate-Eskoriatza ibilbideko autobusak 23:15ean, 01:00etan eta 04:00etan irtengo dira Oñatitik, eta Arrasateetik 00:45ean hasi eta hiru orduro. Bergara-Arrasate-Gasteiz ibilbidea egiteko, Bergaratik 23:30ean irtengo da autobusa. Arrasaten 23:45ean, 01:45ean eta 04:15ean hartzeko aukera egongo da. Gasteizetik itzultzeko, aldiz, 00:45ean, 02:45ean edo 05:30ean.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gaueko autobusaren erabiltzaile gehienak gazteak direnez, eurei ekarri die onura, batez ere, ordutegi aldaketak.

Aipamen berezia Leire Kortabarriari XV. Rikardo Arregi sari banaketan

Bere erreportajeak erdal hedabideetan izaniko oihartzuna goraiatu dute

Z.V.M.

Leire Kortabarriak aipamen berezia jaso zuen joan den zapatuan Andoainen banatu ziren Rikardo Arregi sarietan. GOIENKARIAN argitaratu zuen *Billy Petersen. Telebistako izar baten iragan euskalduna* erreportajeagatik saritu dute.

XV. Rikardo Arregi sarietan aipamen berezia egin zioten, joan den zapatuan, Andoainen, Leire Kortabarriari. Leirek pil-pilean zegoen C.S.I. telesailiko Billy Petersen izar amerikarrari eginiko elkarrizketa argitaratu zuen joan den urtarrilaren 17an GOIENKARIAN. Estatubatuarrak Euskal Herriarekin izan dituen hartu-emanak azaleratzea eta dokumentazio sakonaz osatzea goraiatu zuen epaimahaiak.

Aktore ezagunak Oñatin emandako denboraldia eta herriarekiko duen begirunea argi azaldu zuen Leirek *Billy Petersen. Telebistako izar baten iragan euskalduna* erreportajea.

Leire Kortabarriak pozik dagoela adierazi digu: "Baina ez didate niri bakarrik eman saria. Azken baten, sari hauek ez dizkiete normalean hedabide txikiei ematen, eta alde horretatik oso pozik nago. Komunikabide guztiari eman diote saria".

Andoainen banatutako sarietan saridun nagusiak Ixiar eta Estitxu Eizagirre izan ziren, azken urtean *Argia*-n argitaraturiko elkarrizketa sortarengatik. Hala erabaki zuen sei lagunek osatutako epaimahaiak. Horrez gain,



IRATI AGIRREAZALDEGI

Andoainen saritutakoak. Leire diplomarekin (bigarrena, eskumatik hasita).

izendapen berezia egin zieten *Eguna*, *Egunero* eta *Egunkaria* argitalpenei. Eta Amets Arzallus ber-

tsolari eta kazetariak *Kazetari Berria* saria eskuratu zuen, Euskadi Irratian egindako lanagatik.

Bergara-Zumarraga errepidea datorren urtean hasiko dute

Lau errete izango ditu, eta Deskargan tunela egingo dute

Z.V.M.

Nahiz eta oraindik proiektua izan, Bergara eta Zumarraga arteko errepidea egingo dutela iragarri dute. Lanak egiteko 124 milioi euro erabiliko dituzte, eta 30 hilabete izango dituzte lanok amaitzeko. Hala ere, 2004an hastea espero dute.

Joan den astean, Anton Jaime Errepide diputatuak Bergara-Beasain bideari dagokion GI-632 Bariantearen proiektua aurkeztu zuen. Jaimek kargua uztera zihoala eman zuen proiektuaren berri. Egitasmoarekin, egiten ari diren Ormaiztegitik Zumarragara doan bidea eta aspaldi ireki zuten ekialdeko saihebidetako lotzea dute helburu.

Proiektua aurrera eramateko 124,5 milioi euroko inbertsioa egingo dute. Lanak 10 kilometrokoak izango dira, eta horrekin batera bi tunel handi, zenbait bia-

duktu eta bina bide noranzko bakoitzarendako.

Lanak hiru fasetan egingo dituzte: lehenik eta behin, Bergara eta Antzuola arteko bidea landuko dute; bigarrenik, Ezkioitik Zumarraga pasatu arteko lanak izango dira; eta hirugarrenik, Deskarga. Azken horretan 600 metroko tunel bat egingo dute. Lanak egiteko epea 30 hilabetekoa da, eta 2004rako hastea espero dute, orain abian dauden errepide lanak —Ormaiztegi eta Zumarraga bitartekoak— amaitzen direnean. Hala ere, Diputazioetik ez dute epe zehatzik eman.

Bestalde, Bergarako Ekialdeko saihebidetako zabaldu egingo dute: batetik, orain arte noranzko bakoitzarentzako bide bakarra izatetik bina izatera pasatuko da; bestetik, Bergara eta Zumarraga arteko ibilbide zaharra itxi egin beharko dute, eta horrekin, San Migel mendiaren azpitik tunel bat eraiki beharko dute.

LAN ESKAINTZA

Hautzaindegietarako eta zentro publikoetarako deialdiak laster

HAUTZAINDEGIKO LANGILEAK

Hautzaindegian LH-2 eskatzen da

Informa zaitez!
943 444 509

GANESHA

tattoo & body piercing
Rastak eta extensioak
Hortzetako piercing-a

KLINIKA LAGUNTZAILEA • LABORATEGI KLINIKOA
ESPERIENTZIADUNA • HIGIENA %100

Mentxu, 943 71 18 24 • Olarte kalea 43 bis • ARRASATE



Ehunka neska-mutikok hartuko dute parte Debagoieneko udalekuetan aurtengo uztailean

Herri gehienetan oraingo astean hasi dira, baina Elgetan, Leintz Gatzagan eta Aramaion datorren astean hasiko dira

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aurten ere ibarreko herri guztietan gaztettoendako udalekuak antolatu dituzte. Jolas egiteko, euskaraz jarduteko eta lagun berriak egiteko aukera paregabea da. Zenbait herritan, nagusiek beste herri batzuetara joateko aukera dute.

Oraindik hainbat umek itxaron egin beharko dute udalekuetan hasteko. Leintz Gatzagan, esaterako, astelehena (hilak 7) izango da egun handia, eta hilaren 18ra arte iraungo dute. Herrian bertan jardungo dute 2 eta 10 urte bitarteko umek, eta nagusiagoek herritik kanpora antolatutako udalekuetan hartuko dute parte.

Aramaion, berriz, hilaren 10era arte itxaron beharko dute gaztettoek, jaiak amaitu arte, hain zuzen. Aretxabaletan, aldiz, hasi dira udalekuak. Udaleko Kultura Sailak antolatutako udalekuek

uztailearen 1etik 21era arte iraungo dute. Goizez eta arratsaldez joateko aukera izango dute aretxabaletarrek.

Arrasaten atzo hasi ziren umek Udaleku Irekietara 300 bat animatu dira, eta goizez edo arratsaldez jarduteko aukera izango dute. Goizean hamarretatik ordu batera bitartean jardungo dute eta arratsaldean, berriz, 15:30etik 16:30era. Hilaren 24ra arte iraungo dute. Horrez gain, kanpo udalekuak ere egingo dituzte: Orio, Beintza eta Bidarraira joateko aukera dute arrasatearrek. Horietara 200 lagun joango dira.

Bergararrek, azkenik, hilaren 1ean hasi zituzten udalekuak. 370 neska-mutiko animatu dira aurten. Batez ere kanpora begira antolatu dituzte ekintzak, betiere eguraldiak laguntzen badu. Adinaren arabera banatu dituzte taldeak; hala, 2 eta 12 urte arteko gaztettoek goizeko hamarretatik ordu batera bitartean jardungo dute.



IRATI AGIRREZALDEGI

Neska-mutikoak, hainbat taldetan banatuta, jolasean ibiltzen dira begiraleekin udako goizetan. Argazkian, Bergarako talde bat.



UMEAK Aiala Sasietak eta Amaia Arregik 5 eta 6 urte dituzte, eta bigarren aldia dute aurtengoa Bergarako udalekuetan. Udalekuetatik, igeri egitera joatea atsegina dute batez ere, eta begiraleekin oso ondo konpontzen direla azaldu digute. Gainera, beti batera egoten direla esan digute.



GURASOAK Ez da lehen aldia Anabel Agirrebeitiak Andrea eta Julen Arrasateko udalekuetara eramaten dituena. Andrearen seigarren eta Julenen laugarren urtea da aurtengoa. Ondo pasatzen dutelako errotatu, eta, jolas egiteaz gain, euskaraz jarduteko aukera egokia dela deritzo.



BEGIRALEAK Estitxu Lobatok eta Nagore Aizpuruk lehenengo urtea dute begirale gisa, eta Lisbert Iñarrak bigarrena. Bergaran dihardute lanean, eta, lehen astea izanda, nahiko gustura azaldu dira hiruak. 39 begirale eta lau koordinatzaile daude, guztira, Bergaran.

Esklerosi Anizkoitzaren gaineko kanpaina Arrasaten

Lehen aldia izango da kanpaina herrian egiten dena

Z.V.M.

Lehen aldiz egingo da aurten Arrasaten Esklerosi Anizkoitzaren gaineko kanpaina. Domeka honetan izango da eguna, Musakolako igerilekuan. Horrez gain, hainbat mahai jarriko dituzte herrian zehar.

Eugenia Epaltza Fundazioak Esklerosi Anizkoitzaren gaineko kanpaina egingo domeka honetarako. Bi helburu nagusi ditu: bata, gaixotasunaren berri eman eta sentsibilizatzea; bestea, Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen zerbitzu gehiago eman ahal izateko dirua lortzea.

Aurrera begira beste proiektu bat dutela azaldu dute fundazioek: Gipuzkoan eta Araban errehabilitazio osoko guneak eraikitzeke proiektua aurrera eraman nahi dute. Gaur egun, EAEko egoitza bakarra Bilbon dago kokatuta. Gipuzkoako kanpaina Donostian, Hondarribian eta Arrasaten egiteko asmoa dute. Hain zuzen, hiru horietan 09:30ean hasiko da, eta arratsaldera arte iraungo du.

Urtero milaka lagunek hartzen dute parte, eta aurten ere jende ugari batzea espero dute antolatzaileek. Igerilekuko ekintzez gain, herrian zehar mahaiak jarriko asmoa dutela adierazi dute antolatzaileek.



Hilda topatu dute desagertutako andre aretxabaletarra

Hiru egunez bila ibili ostean, eguazten arratsaldean aurkitu zuten Bittori Ribera 86 urteko emakume aretxabaletarrraren gorpua. Hilotza Fagor Ederlan lantegiaren atzeko aldeko pinudi baten aurkitu zuen herritar batek, Markole auzoan, emakumea bizi zen tokitik gertu. Eta hark abisua eman zion Ertzaintzari. Bittori Ribera joan den domeka arratsaldeaz geroztik falta zen etxetik. Arratsaldean paseatzera irten eta iluntzean etxera itzuli ez zela-eta, Ertzaintzari abisua eman zioten astelehen goizaldean. /MAIDER OSA

BERGARA

Ibargaraiko alde berria plazarekin lotzen duen bidea zabaldu dute

Ostetako bidea deritzo, eta urteak zeramatzan itxita. Ekainaren erdialdera kale kantoria konpontzeko lanei ekin zieten, eta astelehenean zabaldu zuten oinezkoendako. Herritar ugari erabiliko duen bidea da, Ibargaraiko alde berria Munibe plazarekin eta plaza nagusiarekin lotzen ditu-eta.

Zorua konpondu dute, Errege Mintegiko harrizko horma sendotu, egokitu eta argia jarri dute. Kale kantoria estua izanik, aurrerago bidea zabaltzeko asmoa dutela aurreratu du Gallas-tegi alkateak. /M.B.

OÑATI

Aitor Urdangarin galeriako margolanak jarri dituzte ikusgai

Gasteizko Aitor Urdangarin arte galeriak antolatzen duen margo lehiaketako lan onenak jarri dituzte ikusgai, 50 margolan guztira. Mundu osoko artisten lanak ikusi ahal izango ditugu: Polonia, Alemania, Kolonia, Maroko, Txile...

Bitan banatu dute erakusketa: uztailaren 9ra arte olioak egongo dira ikusgai eta uztailaren 11tik 28ra, berriz, akuarelak.

Esan bezala, kultura etxean dago erakusketa, 18:30etik 20:30era; aste bukaeretan, baita 12:00etatik 14:00etara ere. /A.I.

ELGETA

Elgetarrek egindako eskulanen erakusketa egongo da ikusgai jaietan

Azoka Nagusiko jaiak atzo, eguena, hasi ziren, eta presatutako ekintzen artean, eskulanen erakusketa egingo dute. Hain zuzen ere, atzo arratsaldean ireki zituen ateak kultura etxean dagoen erakusketa, eta jaiak bukatu artean, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara egongo dira ikusgai 14 elgetarrek egindako lanak: berri-tutako altzari zaharrak, altzari berriak, kristalezko hautsontziak, olio eta pintura akrilikoz egindako margolanak... /A.A.



ANTZUOLA

Martitzenean hasi ziren maristena izandako eraikina botatzen, eta ikusmin handia piztu dute lanok herritarren artean, eraikin garrantzitsua izan da-eta herrian

Martitzen goizean eraikina eraisten hasi zirenetik, bi makinak dihardute hantxe lanean. Eraikin hori goitik behera konpondu eta gizarte etxe bezala egokitzeko asmoa zuen Udalak; lanekin hasi zirenean, baina, eraikinaren egitura gaizki zegoela ikusi, eta eraikina eraistea erabaki zuten. Ikusmin handia piztu dute lanok herritarren artean; izan ere, eraikin garrantzitsua izan da herrian maristena, bai maristak bertan zeudenean baita Guraso Elkarteak hartu zuenean ere; eraikin horretan egon dira, azken urteotan, gaztetxea, erretiratuaren egoitza, liburutegia, zinema... Gainera, Eguzki auzoko ingurua zeharo itxuraldatuta geratuko da. Udalaren asmoa da toki horretan eraikin berria egitea, gizarte etxe berria, alegia. /A.I.

ARRASATE

Erakusketa berezia ipini du Lorentxo Altubek baserri bateko ukuiluan

Lorentxo Altube artisau arrasatearrak erakusketa berezia ipini du Etxaluze baserriko ukuiluan. Hain zuzen ere, ukuilu zaharra berritu, eta han zintzilikatu ditu hogeitaka urtean egindako lanak.

Lorentxo Altube eza-guna da euskal jatorrizko musika tresnak egiten dituelako; orain arte erakusketa bat baino gehiago egin izan ditu Euskal Herriko zenbait herritan. Orain, erakusketa propioa ipini du Etxaluzen.

MUSIKA TRESNAK

Hari, haize eta perkusio instrumentuak daude ikusgai, guztiak ere egurrekin landuta: ttuntunak, albokak, harpak, tobera, dultzainak, lauteak... eta, batez ere txalapartak. Izan ere, horixe da Lorentxo Altuberen instrumentu kutunena. Asko sakondu du haren azterketan; besteak beste, hainbat egur mota erabilia txalapartak ateratzen duen doinuaren tin-

brea aztertu eta kalkulatu du dezibeliotan.

ERREMINTAK

Horrez guztiaz gain, Etxaluze baserrian bertan aurkitu eta batutako antzinako tresnak berritu eta musika tresnekin batera ipini ditu erakusketan: igitaiak, zorrotzarriak, laiak, segak, aroztegiko tresnak... Dene-tik dago.

AKASO PUBLIKO EGINGO DUTE

Oraingo, erakusketa berezi hori pribatua da, baina aurrera begira publiko izateko aukera badagoela dio Lorentxo Altubek. Baina hori ez dago bere esku. /U.M.

Zertzelada

Hari, haize eta perkusio instrumentuak daude ikusgai, guztiak ere egurrekin landuta: ttuntunak, albokak, harpak, lauteak...

ARAMAIO

Euskal Herria da aztergai Aramaio Udako Ikastaroetan

Euskal Herria berabagai hartuta, bigarren urtez Udako Ikastaroak egin dituzte Aramaion. Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik eta Diputazioaren eta Aramaio Udalaren babesean antolatu dituzte ikastarook. Eta, iaz bezala, aurten ere arrakastatsuak izan direla esan genezake. Inguruko herrietatik ez

ezik, urrunagotik ere etorri dira ikasleak eta irakasleak: Madrildik, Bartzelonatik eta Bordeletik, besteak beste.

AURRENEKO HAMAR MENDEAK

Hala, aurreneko mendetik hasi eta hamargarrenera arteko epealdia aztertu dute martitzenetik bari-kura bitartean. /U.M.



Henrike Knör, Mertxe Mondragon eta Pedro Sankristobal diputatua.

ARETXABALETA

UDA elkarteak etorkizuna izango du eztabaidagai batzar orokorrean

Hurrengo egubakoitzean, uztailaren 11n, batzar orokorra egingo du Aretxabaleto kirol elkarteak, UDAk. Urteko balantzearekin batera, etorkizuna izango dute eztabaidagai. Azken urteotan batzordea berritu guran dabilza, baina ez dute aurkitzen herriko futbolaren alde lanik egin gura duenik. Orain arte jardunean ibili direnak, ostera, nekatuta daude, eta, gainera, gero eta zailtasun handiagoi egin behar diete aurre. Datoren futbol denboraldirako, esaterako, entrenatzaileak behar dituzte. /M.A.

ESKORIATZA

Ezin hobeto ospatu dituzte aurtengo San Pedro jaiak eskoriatzarrek

Martitzenean bukatu ziren aurtengo San Pedro jaiak, eta jaien balorazioa egiteko ordua da orain. Bada, jaiak antolatzen ibili diren lagunak oso pozik daude; izan ere, egitaraua prestatzerakoan, herritar guztiei zuzendutakoa eta oparoa egin gura izan zuten. Ekitaldi gehienak jendez gainezka egon dira; hortaz, helburua bete egin dutela esan du Arantxa Untzueta kultura teknikariak. Pailazoaren emanaldiak, antzerkiak, danborradek eta euskararen egunak batu zuten jende multzo handien. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Datozen bi asteotan jolas egiteko aukera ugari umeendako

Astelehenean, uztailaren 7an, hasi eta 18ra arte, herriko umeek Udaleku Irekietan gura beste jolas egiteko aukera izango dute. Hala, 2 eta 10 urte arteko umeak talde bitan banatuko dituzte. Nagusiagoek, berriz, herri-tik kanpora antolatutako udalekuean hartuko dute parte. Herrian 15 ume ibiliko dira Oxel Azkarate eta Larraitz Mendizabal begiraleen esanetara. San Fermin festarekin ekingo diete udalekuei. Irteerak, jokoak eta beste zeregin ugari izango dituzte umeek datozen egunotan. /A.G.

Gutunak

Eskerrak guztioi

Bittori Ribera Etxebarriaren senideok hiru egunetan zehar bilaketa lanean ibili diren guztiak eskertu gura ditugu lerro hauen bitartez: Ertzaintza, Erorrioko txakurrez osatutako erreskate taldea, SOS Deiak, Gurutze Gorria, Udaleko langile eta kideak, kazetariak eta herritarrak. Maitasun handiz eman gura dizkiogu eskerrak Urretxuko Mari Jose Bermejori, eman digun laguntza ezinbestekoa izan da-eta.

BITTORI RIBERA ETXEBARRIAREN
SENIDEAK
Aretxabaleta

Arrasateko gaztetxe inguruko bizilagunei

Asmo bikoitzarekin zuzentzen dizuegu honako gutun hau. Lehenik, San Juan jaiak direla-eta gertatu diren arazoengatik barkamena eskatu nahi dizuegu Gazte Asanbladatik. Eta, bigarrenik, arazo hauek sortu izanaren arrazoiak argitu gura genizkizueke. Jasotakoak Gaztetxeko kideen erantzukizunetik kanpo geratzen diren arren, Asanbladak ezinbestekotzat jo du guztia azaltzea.

Batez ere, San Juan bezperan gertatutakoa argitu nahi dugu. Gaueko ordu txikitik, suterako alarmak jo zuen ordu-bete eta erdiz. Bertan zeuden Asanbladako kideek egoera horietarako adostutako neurriak hartu zituzten. Surik piztu ez zela frogatzean alarma deskonektatzeko saiakera egin zuten, ezer lortu barik. Hau ikustean, Gazte Asanbladako kide batzuek udaltzaingora jo zuten argibide bila, azken hauek irtenbiderik ez aurkitzean suhiltzaileei deitu zieten. Azkenean, suhiltzaileek kablea etetearekin amaitu zen dena.

Zenbait lagunek Gaztetxe inguruetan sortutako kalteez ere jabetu gara Gazte Asanbladakoak. Gertatutakoak benetan arduratzen gaitu eta prest gaude edozein proposamen jaso eta gure eskuetan dagoena egiteko.

Horregatik eta Gaztetxeak zuzenean edo zeharka sortu ahal izan dituen arazoengatik alde aurretik barkamena eskatzen dizuegu Gazte Asanbladakoak. Gaztetxearen inguruko edozein keza edo iritzi entzuteko gaude bertan eta atak edozein herritarrentzat egongo dira zabalik.

Gaztetxearen helburua herriarekin elkarkidetasunean oinarritutako harremana lortzea da.

Eta, bukatzeko, jarraian ematen dizkizuegu gurekin harremanetan jartzeko helbideak: batetik, arrasatekogaztetxea@euskalerrria.org, mezu bat posta elektronikoz bidaliz gero; edo, bestela, gure helbidea honako hau da: Uarkape atzea z/g.

ARRASATEKO GAZTE ALTERNATIBOEN
KOPRADIO ORGANIZATUA (AGAKO)
Arrasate

Isolamendua amaitzea guztion ardura da

Valdemoro, Curtis eta Algeciras dira egun, gure senide eta lagun presoek espainiar eta frantziar estatuaren sarri ezartzen zaizkien isolamendu neurrien adibiderik garbienak. Valdemoron dauden euskal preso politikoez aurrera eramandako borrokek, Jesus Mari Etxebarriak egindako 50 egun baino gehiagoko gose grebak eta Curtis eta Algecirasen orain urtebete baino gehiago hasitako txapeoek isolamenduaren azalera ekarri dute, muturreko borroka hauek isolamenduaren larritasuna begi bistan utziz.

Isolamendua ezohiko neurria bada ere, ezartzen den kasu gehienetan legez kanpokoa izanik ere, eguneroko neurri bihurtu dute, erabaki politikoa medio euskal preso politikoen kontra estatuek darabilten politikaren baitan, egun 133 izanik egoera honetan dauden euskal presoak. Isolamenduak bilatzen dituen helburuak nabarmendu behar ditugu, presoaren erabateko suntsipen fisiko zein psikologikoa bilatzen duten ezaugarri multzoak osatzen baitu neurri hau. Isolamendu moduen azpiegituraren baldintza hotz eta gizagabekoa, funtzionarioek inpunitate osoz jokatzearen eskubidea, bizi baldintza kaskarrak are larriago bihurtzen dituzten debeku eta muturreko neurriak... ezaugarri hauek guztiek gure senideen kontrako etengabeko tortura psikologikoa dakarte, presoaren barkatzeak areagotuta.

Izan ere, bakartzea da, isolamendurekin batera, erabaki politikoa medio espainiar eta frantziar kartzetako zuzendaritzek bilatzen dutena. Sakabanaketatik hasita, euskal preso-

ei ezartzen zaizkien neurri orok, preso bakarrik sentitzea, geratzea dute helburu. Gobernuak aski ongi baitakite gure senideak arras maitatuak direla euren familietan, lagunartean eta herrietan, eta horren kontra aritu nahi dute eskura dituzten neurri guztiekin. Soto del Real espetxean gertatutakoa horren adierazgarri garbia da. Preso bakoitzeko bisita kopurua hamarrera mugatuz, presoak bere inguru naturalekin izan dezakeen harremana ahalik eta gehien mugatuz. Argi dago, preso dagoen edozein pertsonak bere inguruarekin harremana izateko eskubidea izateaz gain, hori onuragarria behar lukeela presoarentzat. Gure senideen kasuan, ordea, espetxe barruan urratzen zaizkien eskubideetako beste bat dugu hau, presoaren bizi baldintzak are latzagoak egiteko xedez.

Honen guztiaren aurrean, berriz ere deia luzatu nahi diogu euskal gizarteari, gure senideen bakartzea bilatzen dituzten neurri hauen guztien kontrako salaketan, lanean jarrai dezan, inoiz baino gehiago ez ditzagun bakarrik utzi. Era berean, benetako konpromisoak hartzeko exijentziaz zuzentzen gaitzaizkie herri honetan ardura politikoa dituzten erakunde, alderdi eta agintariei, euskal herritar denen eskubideak bermatzeko erantzukizuna dutelako eta bakartze neurri hauekin amaitzea guztion ardura delako.

ETXERAT
Arrasate

Hala-eta ere, aupa, Athletic!

Ausarta izan da iazko urtean Athleticen emakumezkoen futbolaren alde egin duen apustua; jokalaria eta jarraitzaileen aldetik erantzuna ez da gutxiago izan. Kirol hau gustuko dugunoi eta hain gustuko ez dutenei ere ez zaie oharkabea pasa denboraldi bikain hau, eta guran ilusioa sortzeagatik batez ere, zorionak, guztioi. Hala eta guztiz ere, Athletic taldekoentzat ere bigarren mailako izaten jarraitzen dugu. Oraingoan, froga guztiak gainditu, azterketa medikoa pasa eta entrenatzaileen onospena lortu ondoren, Larraitz Kortabarria ekipotik kanpo utzi dute.

Bigarren taldeko jokalaria batentzat oso garesti ei da urtea igarotzeko aukeratutako Lezamako egoitza. Horixe erabaki du Athleticen zuzendaritzak.

Infantila, kadetea, jubenila... balitz, ez luke inolako arazorik izango...; mutila izanez gero, noski. Egoitza, taxia etxeko ataritik Lezamara, edota bertaraino eramango lukeen autobusa..., baina..., emakumezkoa zara, Larra.

Eurena da galera, Larra. Ez jokalaria bezala dituzun dohainengatik soilik; ezagutzen zaitugunok badakigu pertsona bezala dituzun aukerak kirolari moduan dituzunen gainetik daudela. Maratoia lako lasterketa gogorra da bizitza, eta baloia hanketan duzula, edo apaletan utzita ere, jartzen dizkizuten oztopo guztiak saltatuko dituzu. Badakizu hau ez dela lehenengo deskalabrua izan, ez eta azkena ere.

Amaitzeko, gustuko duzuen kirola dena delakoa izanda, Larra eta neska guztiok, zuenean jarraitu, eta eutsi goiari! Berdin da bigarren, hirugarren edo lauugarren mailako izanda ere. Segi borrokan, helmuga edozein dela ere, merezi izango du eta.

ESTI LOITI
Arrasate

Arrasateko Gazte Asanbladako hiru kide identifikatuak

Ekainaren 13an, egubakoitza, Arrasateko Gazte Asanbladako hiru kide Gaztetxe berriaren irekieraz informatzen zuten kartelak alde zaharretik pegatzen ari zirela, bi ertzainen bisita desatsegina jasan zuten.

Gazte Asanbladako hiru kideak identifikatu eta kartelak pegatzeko kuboan zeukaten kola botatzera behartu zituzten. Ondoren "Deslucimiento de fachadas" izeneko "delitua" burutzen ari zirela eta isun bat ziurrenik ordaindu beharko zutela informatu zieten. Momenturo ertzain bat kartelak pegaturiko parete argazkiak ateratzen aritu zen, baita asanbladako kide bati kartel bat kendu ere, hau guztia "froga" gisa.

Honen guztiaren aurrean, Gazte Asanbladako kideok gure amorrua eta haserre erakutsi nahi dugu eta baita gogorki salatu ere gertaera tamalgarri hau, gure ustetan honelako gertaerak soberan baitaude.

AGAKO
Arrasate

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Reala, Beckham... Futbola da gaur egun herriaren opioa?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Empresaritzira irakasle eta kooperatibismoan aditu da Iñazio Irizar (Oñati, 1953).

Bukatu berri diren *Kooperatiba Ekintzailetasuna eta Eskualde Garapena* jardunaldietan ekintzailetasunaren gaineko liburua aurkeztu du.

LEIRE KORTABARRIA

Ekintzaile izatearen erronka liburua aurkeztu duzu jardunaldiotan. Zer auzki dezakegu bertan?

Bi zatitan banatu dut: lehenengoa unibertsitatean ematen ditudan eskolotako corpus teorikoa da. Nuen materialetik abiatu naiz: ekintzaileen ezaugarri nagusiak, lurralde baten garapenerako zer egin behar den, ekintzaileen garrantzia... lan-tzen ditut, baita ekintzaile izateko zer egin behar den, administrazioaren pape-ra... 89 ekintzaileen adibideak erabiltzen dira teoria azaltzeko. Bigarren zatia praktikoa da: enpresa plan bat zelan egin. Hori egin nahi duenari laguntza eskaintzeko da.

Ekintzaile izaten ikasi egin daiteke ala jaino egin behar da?

Ikasi egiten da. Javier Mongelos MCCko Kontseilu Orokorreko presidente ohiak Oñatiko jardunaldiotan parte hartu du, eta hark argi esan du: beharra izanez gero, enpresa ekintzaile bihurtu daiteke.

Zelan egiten da, bada, ekintzailea?

Arrazoi askok laguntzen dute ekintzailearen sorrerara. Oro har, entrenamendu luzea behar da: gaztetik hasi behar da gauzak asmatzen, sortzen eta probatzen, eta hutsen bat egiten bada, hortik ikasi behar da. Norberaganako maitasuna ere izan behar da, gauzak asmatu eta abian jartzeko.

Hortaz, ekintzaile ona izate aldera, zer da garrantzitsuago: izaera, nortasun indartsua ala prestakuntza?

Lehenengo, gogoa izan behar da; gero, langile izan behar da; eta gero, eroriz gero, zutitzen jakin behar da. Zerbaitek huts egiten badu eta bertan behera uzten bada, ez da ekintzaile ona izango. Horrez gain, aukerak aprobetxatzen jakin, ekimena izan... Norberaren ideia errealitate egiteko gauza izan behar du ekintzaileak.


Norberaren enpresak arrakasta izan dezan, hasierako eredu eguneratuz joan behar da?

Bai, errebisio hori eguneroko egin behar da. Oso malgua izan behar da, eta merkatura egokitu: merkatuak erakusten digu non gauden, eta lehiakor izan nahi badugu, gure eredu errebisatu egin behar dugu.

Kooperatiba Ekintzailetasuna eta Eskualde Garapena Oñatin izan diren jardunaldiotan kooperatibismoa izan dizue berbagai, eta atzerriko hainbat aditu etorri dira. Kooperatibismoa esportagarria da euren herrialdeetara?

Herrialde askotako enpresako adituak etorri dira, bai; batez ere Latinoamerikatik: 70 bat lagun. Kataluniatik, Galiziatik, Madrildik, Andaluziatik, Gaztelatik... ere etorri dira, eta euskaldunak ere egon dira. Denak etorri dira hemengo ereduetik ikastera, eta euren herrietan zer aplikatu dezaketen ikustera, baina hemengo ereduak ez dira *esportagarritasun* ikuspegitik begiratzen. Eurek hango beharretara moldatuko dituzte hemengo ereduak.

Zuk Arrasateko mugimendu kooperatibista sakon ezagutzen duzu. Zeintzuk dira mugimendu horren arrakastaren klabeak?



ENKO AZKARATE

Iñazio Irizar

'EKINTZAILE IZATEAREN ERRONKA' LIBURUAREN EGILEA

“Ekintzaile ona izateko entrenamendua behar da; eta ambizioa eta norberaganako maitasuna”

ETORKIZUNEN ENPRESA

“Etorkizunean, enpresa gehienek gero eta ikerkuntza gehiago egingo dituzte. Etorkizuneko enpresak produktuaren hobekuntzan oinarrituko dira”

DEBAGOIENA

“Debagoieneko enpresak ondo kokatuta daude, eta etorkizun ona ikusten diet. Ekintzaile berriak ere badatoz ibarrean: balio handiko gazteak daude”

Estatuan enpresak sortzea, garai hartan, ez zen zaila; izan ere, autarkiako erregimen ekonomikoan bizi ginen, eta On Jose Maria Arizmendiarririk oso ondo egin zituen gauzak hasieratik. Alde batetik, gazte talde bat inplikatu eta kontzientziatu zuen; esan zuen ideiak ondo daudela, baina ez badira gauzatzen ez dutela balio; eta balio kristauak irakatsi zizkien. Hamar urtean enpresak sortu eta aurrera eramane zutuzten, eta hasiera hartako arrakasta izugarria izan zen gero izango zenaren oina-

ria. Hasierako lehen esperientziek porrot egin izan balute, MCC ez litzateke gaur egun dena izango.

Liburuan Estatuko 89 ekintzaileen adibideak ematen dituzu; tartean, Debagoienarekin lotura estua duten hirurenak. Zer nabarmenduko zenuke bakoitzetik?

Donostiako Merkataritza Ganberak XX. mendeko enpresaburu onenen artean aukeratu zituen Jose Mari Arizmendiarririk, Juan Zelaia eta Jose Mari Ormae-

txea. Arizmendiarririk ideologoa zen: hark ez zituen ideiak gauzatzen, besteei esaten zien gauzatze hori egiteko. Irakatsi zienen artean Ormaetxea zegoen: besteak beste, Fagor, Euskadiko Kutxa eta MCCko sortzaileetako bat izan zen. Juan Zelaia, Ormaetxeak ez bezala, bazituen aurrekariak familian, aita enpresaburua zelako. Estilo askotariko ekintzaileak izan ziren: Ormaetxeak enpresa berriak sortu zituen eta Zelaiak enpresa baten barne berritasunak sartu zituen.

Horrez gain, herriarekin lotutako enpresaburuak dira: Zelaiak, adibidez, beti nahi izan du enpresa Oñatin egotea. Multinazional handiek ez dute kezka hori: gehien komeni zaien lekuan ezartzen dira.

Debagoieneko eta, oro har, liburu-ko ekintzaile guztiak kontuan hartuta, ekintzaile arrakastatsu moduan definitzen duten ezaugarri komunik badute?

Guztiak arriskatu egiten dute, eta saiatzen dira gauza berriak abian jarri eta dau-denak aldatzen; ez dute paso egiten, beste barik, baizik eta gauzak hobetzea. Bada-kite arriskatuz gero porrot egin dezaketela, baina saiatu egiten dira, eta gehienetan ondo irtetzen zaie. Ambizioa ere badute, eta enplegua sortzeko grina.

Gaur egun ematen du behar guztiak aseta ditugula... Ekintzaile berriek badituzte aukerak?

Bai, bai. Alde batetik, enpresa guztiak bost urtean barne berrikuntza egin behar dute. Bestetik, etorkizuna informazio teknologiararen bidetik dator, eta hor asko dago egiteko. Ekintzaile berrien aukera handiena izan daiteke: adibidez, ez enpresa berriak sortzea, dagoeneko asko eta asko dagoelako, baizik eta dauden enpresen katalogoa berritzea, produktu berriak asmatzea...

Debagoieneko ekintzailetasun eta enpresa egoera zelan ikusten duzu?

Aldaketa dezente gertatzen ari dira. Etorkizunean, enpresa gehienek ikerkuntza gero eta gehiago erabiliko dute. Adibidez, hor dago Garaia berrikuntzagune garrantzitsua... Etorkizuneko enpresak euren produktuen ezagutzan eta hobekuntzan oinarrituko dira, eta produktuei balio erantsi handiagoa emango diete. Modu horretan lortu ahal izango da Europako ekialdeko herriekin, Asiakoekin... lehiatzea. Hango langileek askoz soldata baxuagoak dituzte hemengoek baino; hortaz, gakoa da gero eta produktu hobekak egitea eta sektore berrietan sartzea: teknologia, adibidez. Nik uste dut, oro har, Debagoieneko enpresak ondo kokatuta daudela, eta etorkizun ona ikusten diet.

Hori, Debagoieneko enpresei dago-kienez, baina zuk eskolak ematen diezkiezun Debagoieneko ekintzaile berrien gainean zer esan dezakezu?

Balio handiko ekintzaile gazteak datoz, bai. Ideia politak dituzte. Gehienek informazio teknologien arloan jarduten dute, eta birziklapena ere aztertzen dute. Mon-dragon Unibertsitateak urtero deitzen du ekintzaile berrien lehiaketa, eta oso proiektu interesgarriak aurkezten dituzte. Bada-go etorkizuna, bai.

Informazioa, teknologia berriak... maiz aipatu dituzu. Horiek zein aplikazio izan dezakete ibarreko enprestan etorkizunean?

Informazioa, alde batetik, norberaren enpresa hobeto ezagutzeko aplikatu daiteke, baita ere lehiakortasunean irabazteko. Enpresako arlo guztietan aplikatu behar da informazio teknologia: ez da nahikoa enpresaren gaineko webgune bat egitea; prozesu produktibo guztien gaineko informazioa jasotzeko erabilgarri izan behar du. Horrek enpresa zuzendariari lagundu egingo dio erabaki hobekak hartzen... eta hori da etorkizunaren gakoa.

Podiuma

Ibai López | 'DIRT SURF'-LARIA

Aretxabaletan bizi den Ibai López bergararrak *dirty surf* kirol berria egiten du. Gainera, orain dela gutxi txapelketa bat irabazi zuen. Askorendako ezezagun den kirol horren gainean jardun dugu.

Zer da *dirty surf*-a?

Australiar batzuek asmatutako kirola. Udan elurrik ez eta *snowboard*-ik egin ezin zutenez, disfrutatzeko tramankulu bat eraiki zuten. Taula bat da, eta burdinazko egitura bat dauka, gurpil batzuekin. Ia edozein lur motatan ibiltzeko modukoa da.

Zelan hasi zinen?

Snowboard-a, surfa eta antzeko kirolak gustuko ditut. Behin *dirty surf*-a probatu, tramankulua erosi eta harrezkero aldapetan behera ibiltzen naiz. Izan ere, tresna hori, batez ere, aldapak jaisteko da. Lauan ere ibil daiteke, patinarekin moduan, hanka lurrean jarrita.

Dirty surf-ean jarduteko zer da beharrezkoa?

Dirudien baino erraza da hura erabiltzea. Hasieran, probatu eta, dena mugitzen denez, zail ematen du. Kontua abiadura hartzea da; bizikletan bezala, poliki joatea, sarritan, azkar ibiltzea baino zailago da. Behin abiadura hartuta, taula okertuz jolas egin behar da. Eta galgatzen ikastea ere garrantzitsua da. *Dirty surf*-a aldapak jaisten ikasten da. Hortaz, ausardia izanda nahiko da. Bihurguneak hartzen ere erraz ikasten da.



Ibai Lopez dirt surfaz gain, snow board-a eta surf-a egiten ditu.

“Dirudien baino errazagoa da erabilera. Behin abiadura hartuta taula okertuz jolastu behar da”

“Ni edozein lekutan ibiltzen naiz ‘dirty surf’-ean, baina ikasteko Debagoienez oso toki egokia da Arantzazu”

Ibarrean badago kirol hori egiteko tokirik?

Ni edozein lekutan ibiltzen naiz, baina ikasteko oso toki ona Arantzazu da. Goiko partea nahiko laua da eta ez da 45 km/h-ko abiaduratik pasatzen; gai-

nera, bide zabala da. Azpian, berriz, nahi izanez gero, abiadura handia har daiteke.

Errepideetan izaten da arazorik autoekin?

Bizikletekin ibiltzen dira, ba! Ertzainek, inoiz,

auto gidariei polikiago joateko esan izan diete, gu bidean gindoazela-eta. Sus-torik ere izaten da bide estuetan, autoak saihestu egin behar direlako, baina susto txikiak gehienetan.

Elgoibarko Txapelketa irabazi duzu.

Bai, hala da. Aurrez, Katalunian irabazi nuen beste bat. Jaitsierako proban izan nintzen lehenengo, baina eslalomean etxekoek ibilbidea ezagutzen zutenez, ez zegoen zeregirik. Abuztuan, Frantzia jokatu den Europa mailako txapelketa baten hartuko dut parte.

Zein da *dirty surf*-aren zailtasun handiena?

Bihurgune gogorak hartzea. Bihurguneetan poliki sartzen garenez, oreka galtzen dugu, eta orduan, teknika jakitea garrantzitsua da. Izan ere, *dirty surf*-ean abiadurak berak ematen du oreka.

Eta alderdi politena?


Ematen duen askatasuna, batez ere, mendira joaten naizenean. Adibidez, Urbiara igo eta pistetatik jaistea oso polita da, batez ere paseatzen inor ez badabil.

Nora jo daiteke *dirty surf*-az gehiago jakiteko?

Interneten badago webgune bat kontsultak egiteko eta tramankulua bera erosteko. Hauxe da helbidea: www.devilsurf.com. Bestalde, zaleok sarritan elkartzeko gara, denok batera jarduteko, eta, gainera, jendea irakusteko gertu gaude.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kirolabur



Larraitz Kortabarria.

FUTBOLA/ARRASATE

Joan den astean eman genizuen Larraitz Kortabarria futbolari arrasatearra Athletic taldeak fitxatu behar zuela zioen berria. Baina froga guztiak gainditu, azterketa medikoa pasatu eta entrenatzaileen onespina lortu arren, Kortabarria ekipotik kanpo laga dutela jakin dugu. B mailan jokatzekoa zen Larraitz, baina bigarren taldeko jokalaria bati Lezamako egoitzako egonaldia ordaintzea garestiegia omen denez, Larraitz Kortabarria Athleticean ez hartzea erabaki du zuzendaritzak. Hortaz, oraindik zehazteke dago datorren denboraldian zein taldean jardungo duen.

FRONTENISA/BERGARA

Bihar, zapatua, Bergarako Frontenis Txapelketako finalerdia jokatu dira Angiozarko pilotalekuan. Maiztean jarri zuten abian txapelketa, eta 12 bikotek hartu dute parte bi taldeetan banatuta. Hala, finalerdietarako sailkatu diren zortzi kirolariek zapatuan jokatu dute, goizeko bederatzietan: Jose Izquierdo eta Candido Hurtado Kepa Garcíaren eta Iñaki Sánchezen aurka; eta Xabier Albisua eta Patxi Vallejo Carmelo Barcalaren eta David Bellanoren kontra. Finala, berriz, uztailaren 12an izango da.

ATLETISMOA/OÑATI

Joan den domekan Torreazoko Krosaren seigarren jaldia jokatu zen Oñatin. San Pedron abiatu eta Olatetik pasatuz, 7,6 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten lasterkariek, jende askok entrenamenduetarako erabili ohi duen bideari jarraituz. Aurtengo aldiko irabazleak, gizonezkoetan, Manuel Gómez eta, emakumezkoetan, Blanca Marín izan dira. Oñatiarren artean azkarrenak, berriz, Iñaki Pelayo eta Marisol Ramos izan ziren. Bestalde, alebin, infantil eta kadete mailetakoko gaztetxoak ere antxintxika jardun zuten domekan Oñatin, euren dako bereziki prestatutako bi kilometroko ibilbidean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Aizkorri antxintxika

Zegama-Aizkorri mendi maratoia jokatu da domekan

Zegama eta Aizkorri arteko mendi maratoia-
ren bigarren aldia
jokatuko da domekan,
uztailaren 6an. Eta egun
berean Aizkorriko Lagunen
Eguna ospatuko dute Zega-
man. Korrikariek EAeko
lau mendi gailur altuena-
koak igo beharko dituzte.

Goizeko bederatzieta Zegaman
abiatuta, Otzaurteko mendatera
iritsiko dira lasterkariak lehe-
nengo, eta gero, Aratz, Aizkorri,
Aketegi eta Aitxuri mendiak igo
beharko dituzte, EAeko lau men-
di altuenerakoak, hain zuzen
ere. Aitxuri da garaiena (1.551
metro). Tartean gorabeherarik
ez da falta izango. Ibilbideak 42,195
kilometroko luzera du eta desni-
bela, berriz, 5.472 metrokoa da.

Ibilbidean hamabi kontrol-
gune ipiniko dituzte, eta horie-
tatik pasatzea ezinbestekoa izan-
go da. Bestalde, korrikariek
indarra berreskuratzeko zazpi
postu jarriko dituzte; horietan
ura, fruta, edariak, barra ener-
getikoak, eta abar egongo dira.

PARTE-HARTZAILEAK

18 urtetik gorako edozein korri-
kari har dezake parte laster-
ketan, baina partaide kopurua 300
lagunera mugatu dute antola-
tzaileek. Gizonezkoetan hiru mai-
la egongo dira: seniorrak eta bete-
ranoen bi talde. Emakumezko-
etan, berriz, bakarra.

Iaz jokatu zen proba lehen
aldiz, eta errekorra lau ordu 14
minutu eta 23 segundokoa da,
Juan Martin Tolosak egindakoa.
Emakumezkoetan, Rosa Lasaga-

baster eskoriatzarra sailkatu zen
lehenengo. Dena dela, proba ama-
tzeke gehieneko denbora zortzi
ordu finkatu dute.

Aizkorriko maratoia mendi
lasterketen Espainiako eta Eus-
kadiko kopetarako puntuagarria
izango da.

Lasterketa lehen postuan
amaitzen duten emakumezkoak
eta gizonezkoak, oroigarriez gai-
nera, 600 euro jasoko dituzte. Bes-
talde, sari berezia egongo da pro-
ba amaitzen duen kirolari zaha-
rrenarendako.

Korrikalariak animatzera
joan nahi dutenek Aizkorriko
gailurrera 11:15 inguruan iritsi-
ko direla eta horren ondoren
Urbiara jaitsiko direla jakinara-
zi dute antolatzaileek.

IRATI AGIRREAZALDEGI



AIZKORRIKO LAGUNAK

Emakumezkoetan, Rosa Lasagabaster izan zen irabazle izako Aizkorriko maratoian.

Abian da Udako Kirol Kanpaina

Tenis eta igeriketa ikastaroak izan dira arrakastatsuenak, partaide kopuruari dagokionez

Udarako hainbat kirol
ikastaro antolatu
dituzte Debagoieneko
kirol zerbitzuek. Izena
emateko lehen epea amaitu-
ta, eta eskaintako kiroleta-
tik batzuk abian jarri dituzte
uztaila hastearekin batera.

Izenemateari dagokionez, kirol
arrakastatsuenak tenisa eta ige-
riketa izan dira. Baina squashe-
an, aerobikean eta *spinning*-ean
jarduteko ere jende asko apun-
tatu da.

Oñatin, Bergaran eta Are-
txabaletan ez ezik, Debagoiene-
ko beste herri batzuetan ere izan-
go dira kirol jarduerak udan.

BIGARREN TXANDA

Kanpainaren bigarren txanda-
rako izena eman nahi dutenen-
dako hilaren 8a da azken eguna.

	OÑATI				BERGARA			ARETXABALETA
	TXANDA 0	TXANDA 1	TXANDA 2	GUZTIRA	TXANDA 1	TXANDA 2	GUZTIRA	TXANDA 1
AEROBIK	51			51			86	7
AQUAGIM	13			13				
IGERIKETA	51			51	80	57	137	33
TENIS		82	75	157	58	58	116	9
MINI-TENIS		98	78	176				
BADMINTON		38	15	53				
BEISBOL		16	9	25				
ESKALADA					9	5	14	3
SQUASH		49	38	87				
MOUN-BIKE		28	14	42				3
PATINAJEA	84			84			19	5
PATINAJ.H.	15			15				
PILOTA		40	32	72	7	11	18	3
PSIKOMOT.		8	4	12				
WATERPOLO	40			40				
PIRAGUISMO		24	13	37				
XAKE	17			17				
GOLF	13			13				12
MULTIAKTIBIT.					26	22	48	1
DEFENTSA PERTSONALA						0	0	
SPINNING							78	
ARKU TIRAKETA								
NATUR IHARD.								
SKATE								
GUZTIRA	284	383	278	945	180	153	516	76
								1537

KOLOREATUTAKO LAUKIAK HERRI HORRETAN KIROL HORI ESKEINI DELA ADIERAZTEN DU.

OHARRA: 2. TXANDAN IZENAEMATEKO EPEA UZTAILAREN BAN AMAITZEN DA.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7 • ARRASATE • 943 79 90 43

Produktu dietetikoak • Sendabelarrak • Kirol dietetika
Elikadura naturala • Kosmetika naturala • Dieta pertsonalizatuak

BELAR DENDA BAT BAINO GEHIAGO...

Talde profesionala zure zerbitzura

- Sendagile naturista elkargokidea
- Dietista diplomaduna
- Estetizista
- Masajista
- Zirujau estetikoak (barizeak, kooperosia, zahartzaroko orbanak, zimurdurak, ezpainak, laser bidezko depilazioak, eta abar)



Orain zure ametsa bete egin daiteke!

Zure Gazte-txartelarekin Errealaren bizikleta hau eskura dezakezu.

Gazte-txartelaren titularra bazara, eska iezaguzu kupoia zozketan parte hartzeko. Errealaren 77 bizikleta dituzu zain. Eta oraindik ez baduzu, eska ezazu Lankide Aurrezkiaren edozein sukurtsaletan. Aprobetxa ezazu, gaztea zara eta! Informazio gehiagorako, dei ezazu 901 333 444 telefonora.



Bidai aseguru mundu osorako estaldurarekin



Eska ezazu zure Gazte-txartela eta %50erainoko deskontuak izango dituzu autonomia erkidego guztietan eta Europako gainerako herrialdeetan.

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko uztailearen 4a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren
6tik 13ra



umm...

Zapore eta koloreari dagokienez, hamaika motatako izozkiak ditugu aukeran; hala ere, modak joan eta modak etorri, **DEBAGOIENKO IZOKIZALEEK modu artisaun egindakoak dituzte gurago, eta ibarreko gozogileak benetan bikainak dira izozkigintzan.**

Bizikletak, igerilekua, eguzkia hartzea, oporrak... eta izozkia. Horra hor udako klasikoak, beti modan daudenak, eta horretan Debagoiena ez da salbuespen. Ibarreko esperientzia handiko izozkigile batek zera diosku: "Jendeari beti gustatuko zaio izozkia; hori ez da garaien arabera aldatzen".

Izozkien kasuan, debagoiendarrok ere leialak gara izozkien gaineko iritzi eta uste topikoekiko: izozkiak udan jaten ditugu, neguan baino gehiago; eta mila mota eta koloretako izozki sofistikuak aukeran izan arren, modu artisaun egindako izozkia dugu gurago.

KUKURUTXOAK, UDARAKO BAKARRIK

Gozotegi eta izozki dendetako arduradun debagoiendarrek aho batez esaten dute ibarreko zail egiten zaigula, oraindik ere, izozkiak urte osorako direla onartzea. Inork tenperatura eta guzti kalkulatu du: "Arrasaten, behintzat, 26-27 gradu egitea behar da jendeak izozki gogoa izateko. 21-22 gradu azpitik egiten badu, orduan bai igartzten dela eskaera askoz baxuagoa dagoela", dio Eugenio izozkigile arrasatearrak.

Iritzi berekoa da Isabel, Bergarako Goxo-Toki gozotegiko arduraduna: "Egun lainotsua baldin badago, ez da apenas izozkirik sal-

tzen, nahiz eta, giro aldetik, baldintza ezin hobeak egon izozkia jateko".

Izozkiak bizi irauten du neguko egun ilunagoetan; hori bai, kukurutzotik terrinara saltoa eginda. Debagoieneko gozotegi gehienek saltzen dituzte izozki-terrinak urte osoan barrena: "Batez ere, jatetxeek eta elkarteek erosten dizkigute; baita lagun koadrilek ere", diosku Isabelek.

IZOKI ARTISAUAK GURAGO

Izozki mota aukeratzeko orduan ere debagoiendarron gustuak ez dira apartekoak: nahiz eta marka, kolore, mota eta zapore guztietako

izozkiak izan aukeran, oso klasikoak gara. Hainbat gozotegik izozki komertzialak eta artisaunak eskaintzen dituzte, eta eurek badakite hori: "Lehen, guk geuk egiten genituen izozkiok; orain, egindakoak saltzen ditugu, eta alde handia sumatzen da. Jendeak askoz gusturago jaten zituen guk egindakoak", diosku Arrasateko Muruamendiaraz gozotegiko Maria Angelesek. Ibarrean izozkigile bikainak ditugu, eta hemengo izozkia kanpoan ere saltzen da. Hala diosku Maria Angelesek: "Urte osoan salgai ditugun terrinok Madrilen ere erosten dituzte".

/LEIRE KORTABARRIA

ELIKADURA/ IZOZKIAK, UDAKO JAKI PREZIATUA DEBAGOIENEAN

Izozkiak egite eta jatearen artea

DEBAGOIENDARROK IDEIAK ONDO FINKATUTA DITUGU IZOZKI KONTUETAN: ARTISAUA, BAINILAZKOA ETA EGUZKIPEAN JATEKOA

LEIRE KORTABARRIA

Freskagarria eta gozoa izateaz gain, izozkia osasunerako ona ere bada, bere neurrian janda: adibidez, digestioari laguntzen dio. Horrez gain, oso elikagai osoa da, daramatzan osagaiengatik: esnea, gurina, esne-gaina, azukrea, arrautzak... dira oinarrizko elementuak.

Esnezko oinarria duen izozki batek -bainilazkoa, txokolatzkoa, kafezkoa...- energia balio handia du. Frutazko zaporedunek, aldiz, ez daramate arrautzarik, eta koipe gutxiago dute, baina fruta zatiak eraman ditzakete. Elikagai bikaina dugu, eta ibarreko gozogile eta izozkigileek benetan findu dute izozkia egitearen artea. Leku batzuetan 20 zapore eskaintzen dituzte, eta Arrasateko Murua-mendiarrak gozotegiko terrinak "Madrilen ere saltzen dira".



Eugenio Uribarren, Mondragoeko bere izozki dendan.

Idiazabalgo gaztarena

Izozki baten sekretua oinarria da. Behin oinarri ona lortu ondoren, edozein zaporetako izozkiak egin ditzakegu. Arrasateko Izozkitegi dendako Josu eta Eugenio Uribarren anaiek ondo dakite hori, ezagun dira-eta herrian eurek egindako izozki originalak: "Dilista, babarrun, txakolin... izozkiak egin izan ditugu; baita Idiazabalgo gazta izozkia ere", azaltzen dute.

Horiek, hala ere, bitxikeriak dira, eta, egia esan, izozkizaleen zapore gogokoen zerrendan luze irauten ez dutenak. Izozkitegiek 18 bat zapore eskaintzen dituzte orain: "Baina aldatuz joaten gara", diote. Klasikoekin orpoz orpo, maracuya, tiramisu, malaga, eta holako zapore exotikoak daude: "Bainilazkoa, esne-gainezkoa, txokolatzkoa... saltzen dira gehien. Horien ondoren, jogurtezkoak eta horren bariantek", azaltzen du Eugeniok.

Saltzaileak bat datoz esaten, izozkigileen kampainak egonda ere, debagoiendarren leloa dela izozkiak udarako direla: "26-27 graduko temperatura behar du jendeak izozki gogoa izateko", dio ekoizle batek.

AITOR ONANDIA / IZOZKIGILEA

"Bainilazko izozkia saltzen da gehien"

Familiak Arrasaten duen gozotegian izozkiak egiten ditu, besteak beste, Aitor Onandiak.

Izozki asko jaten da gaur egun?

Bai, baina ez orain dela urte batzuk bezainbat. Jendeak aisialdirako dituen aukerekin zerkusia du izozkien eskaera jaitiera horrek. Orain, eguraldi

ona dagoenean, jendeak lehen egiten ez zituen ekintzak egiten ditu: kanpora joan, hondartzara irten... eta herrian gutxiago galditzen da, eta izozki gutxiago jaten du.

Udan, bai; neguan ere erosten du jendeak izozkia?

Guk kukurutxoak eta terrinak saltzen ditugu. Neguan, batez ere, terrinak eskatzen dira, jatetxe-

tarako-eta. Edozelan ere, udan bezainbeste ez da saltzen, ez.

Zaporeei dagokienez gero, modak aldatu egin dira?

Egia da gero eta zapore eta izozki mota aukera zabalagoa dagoela, baina jendeak klasikoak ditu nahiago oraindik: bainilazkoa saltzen da gehien, beste gozoki batzuekin -pastelekin, adibidez- ondo ematen duelako.



Aitor Onandia.



Merkealdiak kalitate osoarekin

- Atsedenean espezialistak
- Koltxoak, kanapeak...
- Estalki, edredoi nordikoak...
- Ohe artikulatuak

GURE ESKUETAN LASAI EGONGO ZARA

Atsedena hartzeko sistematik hoberenak

bede[®]
KOLTXOI DENDAK



ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35

KONTZERTUAK/ EZOHICO MUSIKA EMANALDIK UZTAILEKO GAUETARAKO

NIREAUKERA

Jazza eta klasikoa nagusi

FINLANDIAKO TALDE BATEN ETA EUSKAL HERRIKO BIREN SAIOAK IZANGO DITUGU BERGARAN ETA ELORRION

LEIRE KORTABARRIA

Musika eskaintza oparoa dugu Debagoienez eta oso gertu, Elorrion, datozen egunotan. Alde batek, Bergarako Udako Gauak egitarauak hainbat jazz emanaldi ekarriko dizkigu; eta, bestetik, Musikaire jaialdien barne, musika klasikoko kontzertu bitxia egongo da.

Debagoienetik irten barik, Bergaran, jazz doinu lasaiek girotuko dituzte udako gauak. Uztailean, egubakoitz gauero, estilo horretako kontzertu bana egongo da Espoioian, azken hiru urteotan egin izan den moduan.

Lehenengo kontzertua, hortaz, gaur izango da, Myöhä talde finlandiarraren eskutik. Jazz modernoa da euren estiloa. Oso talde gaztea osatzen dute lau lagunek -batez besteko adina 19 urtekoa da-, baina esperientzia eta kalitate handiko taldea dugu: bost denboraldi daramatzate elkarrekin jotzen, eta Finlandiako jazz klub zaharrenean sarritan egiten dituzte emanaldiak. Gurean gaur gauean izango da euren emanaldia, 22:30ean.

Udako Gauak egitarauko bigarren saioa Euskal Herriatik bertatik datorrigu: Miren Aranburu Ensemble taldeak joko du, Espoioian, 22:30ean, hark ere. Miren Aranburuk 1996an osatutako taldea dugu hori, eta Aranbururen beraren ahotsa eta Jean Louis Hargous-en doinuak ditu ardatz.



ARRIOLA KULTURA ELKARTEA

Jazz emanaldi asko antolatzen dira gurean udan. Irudian, Musikaire jaialdiko emanaldi bat.

Iaz Errabal euskal jazz zigiua estreinatu zuten biek, *Gorri Isila* diskoarekin. Miren Aranbururen ahots samurrak gai propioak eta euskal kantu ezagunen bertsio modernoak aurkezten ditu. Euren proposatutako gaiak eta euskal kantu ezagunen bertsio modernok aurkezten ditu Miren Aranburu Ensemble k, eta horiez gozatze-ko aukera izango dugu Bergaran.

MUSIKA KLASIKOA ELORRION

Jazz doinuez gainera, beste eskaintza mota bat ere izango dugu gaur, egubakoitza, ibarretik oso gertu, Elorrion, hain zuzen ere. Musikaire jaialdien barne, organo eta tronpetarako musika klasiko emanaldia egingo du Haizea taldeak. Aitor Olea eta Josu Aiertzaguen musikariek osatutako talde horrek musika klasiko jorratzen

du. Elizan izango da kontzertua, 22:30ean.

Musika protagonista den arren, beste arte adierazpen batzuk ere egongo dira Elorrion egunotan: Non demontre taldeak multimedia ikuskizuna egingo du bihar, zapatua, 22:30ean; eta *La controversia de Valladolid* eliza katolikoaren gaineko antzezlan egingo du etzi Rayuela taldeak.



'FRIDA' Salma Hayek

Dagoeneko zinemetan ematen ez duten arren, orain dela gutxi erakutsi zuten film bat gomendatu gura dut, benetan merezi du-eta: Frida Kahlo margolariaren gaineko *Frida*, hain zuzen ere. Ez nuen haren bizitza sakonean ezagutzen, eta biziki hunkitu ninduen filmak. Borondate handiko emakumea deskubritu nuen, bizitzako kolpeen eta bere ezintasun fisikoaren gainetik bere artea garatzeko modua aurkitu zuen pertsona, hain zuzen ere. Era berean, oso modu interesgarrian islatzen ditu bere senar Diego de Rivera margolariarekin bizi izandako maitasun istorioa eta haren gorabeherak. /L.K.



Iñaki Jauregialtzo

Eskultore oñatiarra, 44 urte. Oteizaren gaineko lan bazuengatik sariak irabazi ditu.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Aldizkaria




BERTSOLAMINTZA
Bertsolari
Bertsotale Elkarte
207 orrialde

Monografiko itxuran dator udaberriko Bertsolari aldizkaria. 2002ko Bertsolamintzan jorrratu ziren gaiak irakur daitezke bertan, besteak beste: gaia epailearen begiradapean, formula magikoak, nolako gaia, halako neurria?, bertso jaialdiaren egitura, zertaz ari gara?, zertan ari gara? Hauek denak Iker taldeak egindako aintzinsolasaren ta Irazuren gibelsolasaren artean.

Bertsolari eta bertsozaleen iritziak batzen dituen aldizkaria da Bertsotale. Erretratu eleganteez gain edukiak hartzen du aldizkari honetan behar duen pisua.

LIBURUA / Nobela



HODEI BERDEAK
Jon Alonso
Susa
286 orrialde


Mural zabal bat margoturik ikusiko duzu Jon Alonsoren nobelan, 60ko azken urteetan Iruñeko abertzaleen giroa agertzen duena.

Joseba Jaka III. Literatura Bekan saritutako proiektua *Hodei berdeak* nobela bilakatu da, eta bertan, idazleak errealtatearen eta fikzioaren arteko jokoak proposatzen dio irakurleari.

Genero askotako nobela da, espioitzakoa, historikoa eta abentura politikozko nobela.

Francoren aurka ahaleginak egin, eta osteraz ezezagun gelditu den belaunaldi bat berreskuratu nahi izan duela esan zuen Jon Alonsok aurkezpenean.

DISKOA / Post-rocka



BEGURA
Miztura
Metak
4 kantu

Lau kantutan banaturik 45 minutu gehi bideo pista batek osatzen dute lan hau. Bere aurreko lanak, maketa bezala ezagutu genuena eta gerora Fork Series diskoetxeak berrargitaratu zuena, aipamen beroak jaso zituen, baita beraz aurkezten emaniko kontzertu birak ere, tartean Red House Blues, Sean Meadows June of 44 ohiaren proiektu berria), taldearekin emanikoa. Kantu sorta honen prestaketa zein leunketan Xabi Erkizia izan dute lagun, *ekoizle artistikoa* deritzona. Grabaketan, aldiz, ekoizle Karlos Osinaga (Lisabö) izan zen Haritz Harreguyekin.

Uztailak 4-11

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Al fondo a la derecha** antzerki emanaldia egingo dute Pikor Teatro eta Zanguango taldeek datorren egubakoitzean, hilak 11, herriko plazan, 19:30ean.

BERGARA

► **Bertso-antzerki** emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Pol-pol tabernan, 22:00etan, Jardun bertso eskolako helduen eskutik.

► **Berpiztuak** kale-antzerki emanaldia egingo du Goloka taldeak bihar, zapatua, San Martin plazan, 22:30ean.

ELORRIO

► **La controversia de Valladolid** antzezlanaren egingo du Rayuela Producciones taldeak etzi, domeka, elizpean, 22:30ean.

► **1937, gogoaren bidezidoretatik** antzerki eta dantza emanaldia egingo dute Kukai eta Tanttaka taldeek datorren egubakoitzean, hilak 11, elizpean, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Beart-eko ikasleen** margolanen erakusketak egongo da gaurtik aurrera, egubakoitza, hilaren 13ra arte, kultura etxean.

OÑATI

► **V. Nazioarteko Pintura Lehiaketako** saridunen olio lanen erakusketak dago kultura etxean, hilaren 9ra arte; hilaren 11tik 28ra, akuarela erakusketak egongo da. Gasteizko Aitor Urdangarin galeriak antolatutako erakusketak da.

JAIK

ANTZUOLA

► **San Martzial jaiak** ospatuko dituzte bihar eta etzi. Bihar, zapatua, honako ekintzak egongo dira, besteak beste: plater tiroketa, 16:30ean; txokolate jana, 18:30ean; herri afaria, 21:00etan; eta abar. Etzi, domeka, San

Martzialgo Txirindulari Igoera egingo dute, 11:30ean; meza egongo da, eta gero, erretiratuendako hainbat ekintza. Arratsaldean, dantza emanaldiak eta erromeria egongo dira.

ARAMAIO

► **Herriko jaiak** ospatuko dituzte gaurtik hasita, egubakoitza, astelehenera arte. Datorren egubakoitzean eta zapatuan segituko dute jaiak. Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasiko dira jaiak, pregoia eta txupinazoarekin; 19:30ean, kalejira egongo da; eta 00:00etan, Sakre eta Gatibu taldeen emanaldia, Herriko Plazan. Segidan, DJ-ekin Disko Festa. Bihar, zapatua, areto futbol partiduak jokatuko dira kiroldegian, 11:30ean; segidan, kale antzerkia egongo da; 16:30ean, plater tiroketa; 17:00etan, Txirritolinpiadak; eta 18:30ean, herri kirolak eta musika emanaldia. Etzi, domeka, meza nagusia egongo da, 12:00etan; gero, dantzariak eta trikitilariak emanaldia; 17:00etan, umeendako jolas parkea, plazan; eta 19:00etan, Galiziako musika emanaldia. Astelehenera, hilak 7, 11:30ean hasiko da jaiak, Sebastopoleko Titiriteroekin; egunean barrena meza, musika emanaldiak eta pailazoaren saioa egongo dira, besteak beste.

BERGARA

► **San Pedro eta San Martzial jaiak** ospatuko dituzte gaurtik etzira bitartean, domeka. Honako ekintzak egongo dira, besteak beste: gaur, egubakoitza, Bergarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia, San Pedro parrokian, 20:00etan; eta Myöhä talde finlandiarren jazz kontzertua, Espoioan, 22:30ean. Bihar, zapatua, bonba japoniarrak botako dituzte San Martin plazan, 19:00etan, eta buruhandi eta erraldoien kalejira irtengo da segidan. 20:00etan, musika emanaldia egongo da, Mariaren Lagundiko elizan; 22:30ean, kale antzerkia, San Martin plazan. Etzi, domeka, San Martzialgo erromeria ospatuko da. 09:30ean hasiko dira ospakizunak, dultzaineroen, trikitilariak, txistulariak... alboradarekin. Segidan, 10:00ak aldera, hain zuzen, San Martzialera burdi igoera egingo da, eta 11:00etan, bertan, meza nagusia. 12:00etan, Xamatx taldearen dantza emanaldia egongo da; arratsaldean, umeendako jolasak eta herri jolasak. 21:00etan, jaitsierako txupinazoa botako dute. ► **San Kristobalgo jaiak** ospatuko dituzte Aldaiegia auzoan uztailearen 10ean, 12an eta 13an.

DEIAK

ARAMAIO

► **Bertso saioa** egingo dute Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Manex Agirre bertsoariak etzi, domeka, kultura etxean, 19:30ean.

ARRASATE

► **Desobedientziaren eta independentziaren alde, Euskal Herri osoan ibiliz** hitzaldia egingo du Enrike López EHUko irakasle kanporatuak etzi, domeka, gaztetxean, 19:30ean.

► **Arizmendi Ikastolako Umezaintza guneak** ikasturte amaiera jaialdia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 11, Umezaintzako egoitza, 18:00etan. Txikienek antzezlanak, dantzaldiak eta kantu emanaldiak egingo dituzte, eta nagusienek, bertso emanaldia.

DEBAGOIENA

► **Uztailetik irailerako turismo egitarau berezia** antolatuko du Mankomunitateak. Bergaran, gune historikoaren bisita gidatuak egongo dira, asteko egun guztietan; argibide-tarako, deitu 943 77 91 28 telefonora.



Gureak bestelako bidaiak dira
Aurten ere gure bidai programa aurkezten dizuegu. Beti bezala, talde txikietan mugitzen gara eta ikusten ditugun herriak errespetatuz.

Ruta de la Seda - India Norte y Sur - Tíbet y Nepal - China - Pakistán - Ruta de Caravanas - Birmania- Laos y Camboya - Filipinas - Indonesia - Irán - Yemen - Turquía - Egipto - Libia - Argelia - Marruecos - Mauritania - Ruta del Atlántico - Senegal - Malí y Burkina Faso - Níger y Benín - Camerún - Kenya y Tanzania - Namibia y Bostwana - Ruta del Nilo - Madagascar - Etiopía - Alaska - Canadá - Parques USA - Ruta Maya - Guatemala - Costa Rica - Perú - Bolivia - Brasil - Venezuela - Patagonia - Nueva Zelanda.

...Baita ere
Utzi kotxea eta segi ohinez...
Horrela deitzen diogu banoan, trekin proiektuari.

Alto Atlas marroquí - Monte Kenya y monte Elgon - Monte Meru y Kilimanjaro - Montañas del Ruwenzori - Glaciar del Baltoro, K2 - Las fuentes del Ganges - Ladakh, valle de Markha - Everest. Campo base - Vuelta a los Annapurnas - Monte Kailash - Cotopaxi y Chimborazo - Cordillera Blanca y Camino del Inca - Vuelta al Paine y Fitz Roy.

Informazioa eskatu, hemen gaituzu:

banoa

Ledesma, 10 bis, 2
48001 BILBO
Tfnoa: 94 424 0011
faxa: 94 423 2039
e-maila: bio@banoa.com



► JAIK

AZOKA, KONTZERTUAK, DANBORRADA... ELGETAKO JAIETAN

Azoka Nagusiko jaiak ospatuko dituzte asteburuan Elgetan, eta gustu guztietarako ekintzak egongo dira. Gaur, egubakoitza, 10:00etan hasiko dira ospakizunak, eta herri kirolak, meza... egongo dira goizean, eta kale antzerkia, zezenak, erromeria... arratsalde eta gau partean. 00:00etan, kontzertua egongo da gaztetxean, Kokein, Parasma, NCM eta Goiko Rock taldeekin. Bihar, zapatua, Eibarko txistulariak hasiko dira eguna girotzen, 10:30ean; hortik aurrera, umeendako Goloka Park egongo da, baita asto lasterketa ere, 13:00etan. Danborrada egingo dute 23:00etan, eta Elgetako himnoa aurkeztuko dute. Etzi, domeka, Azoka Nagusia egongo da, 09:00etan, eta musika eta antzerkia, arratsalde eta iluntzean.


Non: Elgetan. **Noiz:** gaurtik, egubakoitza, uztailearen 6ra arte. Azoka Nagusia etzi egongo da, 09:00etan.

AIPAGARRI

Maider Osa

ARRASATE


Bergarako kultur teknikari berria izango da Maider; uztailaren 14an hasiko da Bergarako Kultura Etxean lanean. 25 urte ditu, eta kazetaritza ikasketak egin zituen. Aurpegi ezaguna da Debagoienean, duda barik; izan ere, duela bost urtetik Arrasate Telebistako eta GOITBko aurkezlea izan da.



Beñat Etxabe

ARETXABALETA

Canal Plus-ek antolatzen duen futbol torneoan jokatu du Beñatek, Realak alebin mailan duen taldearekin. Gabonetan jokatu zuen lehendabiziko torneooa Realarekin, Gasteizen, eta orain, berriro deitu diote. Gaur, egubakoitza, hastekoak ziren txapelketako lehendabiziko partidua.



Ramon Martín

LEGAZPI

Oñatin dagoen Gipuzkoako Protokolo Artxiboko arduradun berria da Ramon. Hamalau urte egin ditu Jaurilaritzako Kultura Sailean lanean, artxiboen inguruko zerbitzuan, hain justu. Geografia eta Historian lizentziatua da eta artxiboen gaineko ikasketak egin ditu Madrilan eta Parisen.



HILDAKOAK

J. Manuel González Garrido. Bergaran, ekainaren 24an. 42 urte.
Ricardo Murillo Ballarín. Bergaran, ekainaren 27an. 80 urte.
Andoni Miren Ibabe Madinabeitia. Aramaion, 28an. 43 urte.
Fernando Ibáñez de Gauna Larrea. Aramaion, 28an. 84 urte.
Fermin Agirre Kortabarria. Bergaran, ekainaren 29an. 92 urte.
Carmelo Gandiaga Larrinaga. Bergaran, uztailaren 1ean. 64 urte.
Karmele Moiuá Domínguez. Oñatin, uztailaren 2an. 55 urte.




Maialen Alonso Pescador
Soraluze • Ekainaren 26a • 3,200 Kg. Gurasoak: **Alfonso Alonso** (Ermua) eta **Onintza Pescador** (Bergara). Argazkian, umea amarekin.



Haizea Gómez Urrutia
Arrasate • Ekainaren 30a • 3,750 Kg. Gurasoak: **Jon Gómez** (Arrasate) eta **Ainhoa Urrutia** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin.



Xabier Etxaniz Lasa
Bergara • Uztailaren 2a • 2,990 Kg. Gurasoak: **Olatz Lasa** (Bergara) eta **Martin Etxaniz** (Bergara). Argazkian, umea amarekin.




Naroa Bergaretxe Altube
Arrasate • Uztailaren 1a • 3,155 Kg. Gurasoak: **Agurtzane Altube** (Eskoriatza) eta **Xabier Bergaretxe** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietzako batera.

GOIENKARIA

Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.



URTEURRENA

Antonia Garai Iriarte

Lehen urteurreneko meza astelehenean, uztailaren 7an, 19:00etan, **Arrasateko San Juan** Bataiatzailearen parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Lucía Urrutia Otxoa

Aramaion hil zen 2003ko ekainaren 25ean, 76 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Ricardo Murillo Ballarín

Donostian hil zen 2003ko ekainaren 27an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Luisa Errasti Etxeberria

Arrasaten hil zen 2003ko ekainaren 17an, 73 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Karmelo Gandiaga Larrinaga

Donostian hil zen 2003ko uztailaren 1ean, 64 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.


ESKELA

Andoni Ibabe Madinabeitia

Zure enbor sendotik jarraituko dugu ardakza guztiekin.



Zure laneko lagunak



SPORTLAND

KIROLA ZEURE ESKURA


Hartu arnasa
gauean aurrera
merkealdia

SPORTLAND ARRASATE



Garibai Etorbidea, 2-6 - ARRASATE

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Asko		Sarrera		Zaborontzia
	* Izena		Pl., hegaz-ti mota		
	Betea				
	Miatu				
* Deitura	Aldiak				
Asiriarren lurraldea	Bilo				
				Bokala	
				Zangoaren atala	
Edo			Euskal atzizkia		
Gizon izena			Bururatu		
				Iridioa	
				Ile multzo luzea	
500	Donostiako frontoia				
Zinduz-kadan	Erroma erre zuen				
Zu			Bokala		Kontsonantea
Sobera			Bokala		Joan aditzaren erroa
		Gipuzkoan, zatoz!			
		Jainko egiptoarra			
Sor			Putre		
Banan bana			Potasioa		
					Bokala

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

EMOSIÑUAN EMOSIÑOZ IL
Eibartar bati biotzeko operaziño larri bat egin bihar zetsen. Onetan, baiña, loterixa tokau jakon: 8 milioi. Baiña semiak ez ziren ausartzen notiziaz aitxari emoten, emozioñak biotza etengo ete zetsan bildurrez. Orduan, medikuari kontsejua eskatu zetsen, ia zelan jokatu une hartan. Laga zebeñ asunto medikuaren eskuetan. Juan da gaixuagana eta estetsa:

- Zuri, loterixan, milloi bat tokau ezkerro, zer eingo zendukey?

- Parisera juango nintzatekey mediku on baten billa.

- Eta bi milloi tokau ezkerro?

- Londresera.

- Eta lau milloi izango balitzakey?

- New Yorkera.

- Eta zortzi tokau ezkerro?

- Ara ba, lau zeuri emongo netzukez.

Berba hauek esan bezain laister, zarata haundi bat entzun zan: medikua infarto batek "seko" lurre-ratu zeban. Emoziñuan emozioñoz, nunbaitx.

EZETZASMATU!

Esteban Plazaola



Realeko hiru jokalariotatik, zeinek jokatu zituen partidu gehien?


Realak, 1980-81ean Liga irabazi zuen ekipoañ hiru debagoiendar zeuden, aurtengoañ bezala: Gaztelu, Kortabarría eta Idigoras. Asmatuko ote zenuke hiruretatik zeinek jokatu zituen partidu gehien Realean?

- Kortabarríak
- 'Gaztelu'-k
- Idigorasek

K. 308; eta Idigorasek, 255.

Erantzun zuzena: Kortabarríak 442 partidu jokatu zituen; Gaztelu-

SOLUZIOAK



B	A	N	A	B
•	A	K	A	•
I	A	S	•	G
Z	O	A	•	R
T	•	A	•	U
N	A	N	D	U
O	N	A	T	•
R	•	O	K	E
R	•	A	L	A
A	•	V	I	R
K	•	A	R	O
A	•	A	S	E
Z	•	U	G	U
•	A	•	U	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarteak

ARIES
martxoak 21-apirilak 21
Bikotekidearekin eztabaidan jardungo duzu; izan ere, aspertuta zaudere harreman horrekin, eta beste era bateko harreman bat hasi gura duzu. Eta bikotekiderik ez baduzu, amodio harreman beroa bizi izango duzu laster.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21
Osasun arazo larriak izango dituzula-eta, dieta zorrotza egin beharko duzu organismoa garbitzeko. Bestalde, hainbat lan proposamen egingo dizkizute; hasiera baten ezin hobeak irudituko zaizkizu, baina epe luzera ez dira horren onuragarri izango.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21
Langabezia bazeude, oraingo astean lan polita aurkituko duzu, alderdi guztietan onuragarri izango dena. Lanean bazabiltza, aldi, mailaz igoko zaitzute eta hainbat abantaila izango dituz, soldata hobearekin. Bestalde, barne segurtasuna izango duzu, eta edozein arazori aurre egiteko gauza izango zara.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22
Kezkatuta egongo zara familiareko arazok direla-eta; edozein ere, pieza garrantzitsu izango zara arazok konpontzeko orduan. Bestalde, zehurtiaz gidatu, istripuren bat izan zenezake-eta.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22
Familiarteko arazo batzuk konpontzeko berba egin beharko duzue, lasai, eta horrela gaizkiulertuak ere konponduko dira. Bestalde, hausnarketa sakona egin beharko duzu, gura duzun barne segurtasuna lortzeko.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22
Lan eta lan, ez duzu besterik egiten. Hori dela eta, arazok izango dituz bikotekidearekin, hura bakarrik sentituko da-eta. Horren harira, lanean bertan ere izango dituz arazok, xehetasunetan gehiegi sakontzen duzu-eta. Bestalde, sariren bat irabazteko aukera.

LIBRA
irailak 23-urriak 22
Sentimendu negatiboetara eta aurretiko amodio istorio istilutsuetara jotzen duzu sarritan. Horrela segitzen baduzu, zure bizitzako benetako amodioa gal zenezake. Aldatu jarrera ezkor hori.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22
Lan eskaintza ugari egingo dizkizute, baina ez bazara argi ibiltzen, dena ezerezetan gera daiteke. Gura baduzu aholku eskatu, baina lehenbailehen.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21
Aldaketak eta bereginturatzek zure bizimoduaren, epe laburreraren eta luzeraren onuragarriak bene-tan. Bestalde, seme-alabekin jarreraren arinagoa izatea komeni zaizu, hau da, haien sentimenduei minik egin barik jokatu behar duzu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20
Lan merkatuari egokitze birziklapen ikastaroren egin beharko duzu. Kosta egiten bazaizu ere, egin ezazu, horren ostean proposamen interesgarri ugari egingo dizkizute-eta. Bestalde, lagun berriak egingo dituz, eta oso gustura egongo zara haiekin.


AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20
Lagunen batek ederra egingo dizu: bikotekidea lapurtzen ahalginginduko da! Bestalde, proiektuak gelditu duzu, baina oraingo horrela uztea komeni zaizu.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20
Oso berri on eta garrantzitsuak emango dizkizu lagun edo lankideteren batek. Pozik egongo zara, azkenean ere, sorkuntzarako daukazun gaitasuna kontuan hartuko dute-eta.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA



ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 5

Lainoak izango ditugu zapatuan, baina, eguerdi aldera, ostarteak nagusituko dira.



DOMEKA, 6

Lainoak eta ostarteak tarteatuko dira, eta euri txikia egingo du; baliteke ekaitza ere egitea.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

21º C

ILARGIAREN ALDIAK: UZTAILA



EGUZKIA: UZTAILAREN 6a



Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Ostarteak.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Zaparradak.

URKULUKO URTEGIA

Azkeneko astean euri pixka bat ere egin du, eta bere horretan jarraitzen du Urkuluko urtegiko ur mailak; aurreko astean bezala, %84 da ur maila.

% 84

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table of phone numbers for various health services and municipalities like OSAKIDETZA (Larrial), DYA (Orokorra), etc.

Table of phone numbers for municipalities like Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, etc.

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

Table of phone numbers for media outlets like GOITB, Goienkaria, Arrasate Press, etc.

Table of phone numbers for various service providers like Txirrítola, Ze barri?, Kontzejupeetik, Putz, etc.

Erakunde hauen laguntzaz with logos for Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, and various municipal councils.

BIZI-POZA/EKAINA



GOIENKARIA

Zenbaitek burusoil geratzea estetikoki zatarra dela uste dute, eta eraginik gabeko botiketara jotzen dute.

Burusoiltasunari eta gizentasunari aurre egiteko botika 'miragarriak'

Arazoei aurre egiteko medikuarengana joatea beharrezkoa da

GOIENKARIA

Estatuko farmazien %96k gizentasunaren eta burusoiltasunaren aurkako produktuak saltzen dituzte sendagilearen diagnostiko barik.

Gizentasuna eta burusoil geratzea bi arazo desberdin diren arren, biek hala biek estetikan eragiten duten ezaugarria dute. Eta sarri askotan baita norberaren autoestimuari ere. Horrez gainera, esan beharra dago oso gaitza dela biendako irtenbidea aurkitzea.

Gizentasunari aurre egiteko dieta era okerrean egiteko ohitura dago, baita kirola modu

desegokian egitekoa ere. Burusoiltasunari aurre egiteko, berriz, ez dago behin betiko irtenbiderik. Hala ere, merkantuan kontsumitzaileendako hainbat produktu aurki daitezke bi arazoei aurre egiteko. Askotan egiten dutela esan arren, gutxirako balio dute. Jakin

Ez dago irtenbide azkar eta erradikalik; onena medikuarengana joatea da

beharrezkoa da ez dagoela irtenbide azkar eta erradikalik. Aukera egokiena mediku espezialistarengana joatea da; hark, norberaren egoera ikertu ondoren, zer egin esaten du.

Zuzenean botikara joatea ez da ona. Estatuko farmazien %96k gizentasunaren eta burusoiltasunaren aurkako produktuak saltzen dituzte sendagilearen diagnostiko barik. Horiatariko %53k bezeroari informaziorik eman barik saltzen dute. Eta badaude hainbat farmazia (%44) mirariak egiten dituzten produktuak saltzen dituztenak. Ez dira sendagaiak, eta ikerketek ez dute horien eraginkortasunik erakutsi.

OSASUNA

Osasunerako Mundu Erakundeak, dieta osasungarriaren alde

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) abian jarriko du dieta osasungarria sustatzeko estrategia. Gro Harlem Brundtland zuzendari nagusia elikagai industriako hainbat enpresarekin harremanetan jarri da.

Erakundearen arabera, gaixotasun kardiobaskularrek, minbiziek, diabetesek, arnasketako gaixotasunek eta beste hainbat gaitz kutsagaitzek munduan urtero gertatzen diren 56,5 milioi heriotzetatik %60 eragiten dituzte. Hori horrela izanik, Osasunerako Mundu Erakundeak munduko biztanleriaren bizi baldintzak hobetzeko beste urrats bat eman du.

INGURUMENA

Estatuko etxean %80 ez dira osasungarriak

Zenbait ikerketaren arabera, estatuko etxeen %80 ez dira osasungarriak. Eraikinak azkar egiten dira, ongizatea albo batera utzita. Horien diseinu, eraikitze eta mantentze lanek ingurumenean eragin handia dute.

Alternatiba gisa, inpaktu txikiagoko materialak erabiliz eraikin berdeak egiten hasi dira. Horrekin batera, lurzoruaren egoera, eguzkiaren ibilbidea eta aire korronteak kontuan hartzen dituzte. Horregatik garrantzitsua da etxearen banaketa: sukaldea, jangela eta egongelak hego-ekialdean eta komunak eta korridoreak ipar-ekialdean egotea komeni da. Hala ere, etxe berdeen proiektua aurrera eramatea garesti irteten da, ohiko eraikinekin baino %15 baino gehiago balio dute-eta.

Arrasate | Bergara

%30

MAYA



Olarte, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 18 86
Faxa: 943 77 09 36

**MILAR
ELKORO**

Nolako pertsonak, halako gustuak eta neurriko elektratresnak

Uda '03 Katalogo berria

Atzeskua

MAIDER OSA

Juanjo Arrieta/Eibar taldeko kontseilaria

Etzeko sua itzaltzera Bergarako bat joan behar Eibarrera?

Nik Eibarko taldearekin oso harreman ona dut. Aspaldi jokalaria izan nintzen, gero entrenatzaile, eta egun kontseilari lanak egiten ditut. Beharbada sua itzaltzera baino gehiago, ohituragatik joaten naiz Eibarrera.

17 urteren ostean, berriro aulkian entrenatzaile gisa.

Ez nuen espero berriro aulkian jartzea, baina nahiko momentu kaskarrera iritsi ginen, eta ondorioz etzeko biri, Jabi Pérez idazkari teknikoari eta niri, aulkian jartzea egokitu zaigu.

Eibar zulotik ateratzeko, bakarria nahikoa ez eta horregatik hartu zenuten erronka Jabi Pérezek eta biok?

Bi partidarako ez dago futbol entrenatzailearik kontratatzerik, eta taldearen estualdiak biok eraman gaitu entrenatzaile kargura. Oso ondo konpondu gara, eta Iker Egaña oñatiarra eta Anjel Garate elgoibartarra ere alboan izan ditugu; haiek ere oso lan ona egin dute.

Bigarren A mailan 16. denboraldia beteko du Eibarrek datorren urtean. Arrateko Amak badu hor zerikusirik?

Arrateko Amaren azpitik astelehenean pasatu ginen taldea osatzen dugunok,

domekan partidua irabazi ondoren. Aretxabaletako Xabier Zubizarreta abadeak saio txiki bat eman zigun, baina ez dakit Arrateko Amak miraria egitea aurreikusita zuen edo ez.

Behin Eibar salbatu eta gero, orain entrenatzaile kargua uzteak ez dizu penarik ematen?

Ez daukat horren nostalgiarik. Bagenekien zein lan genuen guk, eta hurrengo entrenatzailea Amorrortu izango da.

Datorren denboraldira-ko zer espero duzue?

Proiektu berria jarri nahi dugu abian: ekipoa gaztetu egin nahi dugu. Adinean aurrera doazen jokalaria batzuk ditugu, eta beterrano batzuek taldean segitzea nahi dugu (eta beharbada bateren bat fitxatu), baina oro har gazteak fitxatu nahi ditugu, eta horien proiektzioaren bitartez dirua lortu, nahiko aurrekontu juxtuarekin ibiltzen gara-eta.

Eibar taldeko kontseilari gisa, zein kontseilu emango zenituzke emakumeen futbola indartzeko?

Eibarrek ez du emakumeen talderik sekula izan. Eibartarrak izeneko emakumeen taldea badago Eibarren, eta aurten Sociedad Deportiva Eibarrera sartu nahi dugu. Emakumeen futbola boladan dago, eta gu gertu gaude emakumeen taldea aurrera ateratzeko.

Diru kontuez ere asko dakizu, zerbaitegatik izan zara banketzeko zuzendari. Bankuek baino diru gehiago mugitzen du futbolak?

Eibartik eta gu bizi garen herrietatik kanpora bai! Gure mailan Eibarrek du aurrekontu baxuena, eta lehen mailakoen aurrekontua duten taldeen kontra ari gara lehiatzen. Futboleko diru asko ari da mugitzen, eta ez dut uste hori etikoa denik munduaren egoera kontuan hartuta.



“Emakumeen futbola boladan dago, eta gu gertu gaude emakumeen taldea aurrera ateratzeko”

“Futboleko diru asko ari da mugitzen, eta ez dut uste hori etikoa denik”

► Bergararra / 60 urte / Zinegotzia

PIPERRAUTSA

Rikardo

Arregi abizenez, ando-aindarra. Gazterik hil zen, 27 urte zituela. Eta aspaldi, 1969an. Hala ere, euskal kazetaritzaren erreferente dirau. Eta bere izena darama Andoaingo Udalak urtero antolatzen duen kazetaritza sariak. Aurten, sari honen epaimahaiko izatea suertatu zait.

Ezer baino lehen, esan dezadan lana sendo egin behar izan dugula epaileok, zer epaitu ugari aurkeztu delako sarira. Kantitatea deigarria izan da, eta adierazten du kazetari asko ari dela lanean euskaraz, euskarri askotan. Are deigarriagoa izan da batez besteko kalitatea, eta horrek erakusten du gainditu egin direla hastapenetan ohiko diren eskasiak, eta badagoela kazetari trebez osatutako belaunaldi indartsua.

Bestalde, Rikardo Arregi berritzailea eta bultzatzailea omenduz, bere izeneko saria ematen zaio berritasunean eta kalitatean nabarmentzen den lanari. Eta tartean aipamen berezia jaso du etxe honetako Leire Kortabarriak. GOIENKARIAn argitaratu zuen CSI telesaileko Petersen erdi oñatiarraren albisteak, eta gaiak oihartzuna izan zuen gaztelaniazko hedabideetan. Hori oso gutxitan gertatu da euskal kazetaritzan, eta hori goraiatu du epaiak. Saria bezain pozgarria arrazoa, niretzat.

Bistan da badagoela nork hartu Rikardo Arregiren lekukoa. Badago norekin landu euskal esparru komunikatiboa, falta da plan zehatza adostea eta indarrak bateratzea.

MIKEL IRIZAR

100 urte, 100 auto, hilabete 1

FordFiesta Coupé Ambiente 1.3i 70 cv
9.000 €-gatik* (1.497.474 pta.)
ABS, Babes Sistema Adimendua (IPS) eta Segurtasuneko aire-zaku bikotza.



FordFusion Trend 1.4i 80 cv
10.500 €-gatik* (1.747.053 pta.)
ABS, Babes Sistema Adimendua (IPS) eta Segurtasuneko aire-zaku bikotza.



100

Ford Motor Company

100 urte

Orain, 100 urte bete ditugula eta, FordFiesta eta FordFusion modelo berrien 100 auto ditugu, **100 bakarrik**, prezio ezin hobean, **HILABETE HONETAN BAKARRIK**

MUGARRI

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea z/g
 ARRASATE
 Tel.: 943 797 564

Gozatzeko pentsatuak,
 irauteko eginak.

